| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4511 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA. EGITURA ETA LAGUNTZA | *4511 ESTRUCTURA Y APOYO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL* |
| ZERBITZU ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE SERVICIOS* |

**HELBURUA**

1. SAILAREN TITULARRAREN KANPO HARREMANAK
2. IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUAK EMATEKO TITULU JURIDIKOEN EBAZPENA
3. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA
4. EUSKARA-PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)
5. SAILEKO POLITIKA GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN BITARTEZ
6. SAILEKO ESTATISTIKA-LANTZEA

***OBJETIVO***

*1. RELACIONES EXTERNAS DE LA PERSONA TITULAR DEL DEPARTAMENTO*

*2. RESOLUCIÓN DE LOS TÍTULOS JURÍDICOS DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE RADIO Y TELEVISIÓN*

*3. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO*

*4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)*

*5. IMPULSAR Y COORDINAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN TODAS LAS POLÍTICAS DEL DEPARTAMENTO A TRAVÉS DEL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEPARTAMENTAL*

*6. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL*

**BETETZE MAILA**

1. SAILAREN TITULARRAREN KANPO HARREMANAK

Sailburuaren kanpo-harremanak bideratzeko kanal eta bitarteko ezberdinak erabili dira 2022an zehar.

Hedabideetara bidalitako prentsa-oharrak eta bestelako komunikazioak, prentsaurrekoak, era askotako ekitaldiak, gizarte-sareen bidezko komunikazioak edota komunikabideetan izandako elkarrizketak dira horien artean aipagarrienak.

Hauek dira Legebiltzarreko ekimenen adierazlerik esanguratsuenetako batzuk:

Legebiltzarra: osoko bilkuran ahoz erantzundako galderak (7), interpelazioak (5), idatziz erantzundako galderak (42), erantzundako informazio-eskaerak (58),

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

*1. RELACIONES EXTERNAS DE LA PERSONA TITULAR DEL DEPARTAMENTO*

*A lo largo del 2022 se han utilizado diversos canales y medios para encauzar las relaciones exteriores del consejero.*

*Entre las más reseñables están las notas de prensa y otras comunicaciones enviadas a los medios de comunicación, las ruedas de prensa, los actos de diversa índole, las comunicaciones a través de redes sociales o las entrevistas en los medios de comunicación.*

*Estos son algunos de los indicadores más significativos de las iniciativas parlamentarias:*

*Parlamento Vasco: preguntas respondidas oralmente en el pleno (7), interpelaciones (5), preguntas respondidas por escrito (42), solicitudes de información respondidas*

agerraldiak Batzordean (8), lege-proiektuak (0).

Euskadi.eus buzoiko galderak (408).

Irekia: jasotako eskaerak eta galderak (13).

Hedabideak eta sare sozialak: hedabideetara bidalitako komunikazioak (280 inguru), gizarte-sareak (twiter eta facebook) (240 inguru).

*(58), comparecencias en la Comisión (8), proyectos de ley (0).*

*Preguntas del buzón euskadi.eus (408).*

*Irekia: solicitudes y preguntas recibidas (13).*

*Medios de comunicación y Redes sociales: comunicaciones enviadas a los medios de comunicación (280 aproximadamente), redes sociales (twitter y facebook) (240 aproximadamente).*

## 2. IRRATI- ETA TELEBISTA-ZERBITZUAK EMATEKO TITULU JURIDIKOEN EBAZPENA

Ekitaldian, nabarmena da gizarte-komunikabideen arloan egindako lana. Alde batetik, Getxoko FM irratiko lizentzia bat esleitzeko lehiaketa publikoaren ebazpenean aurrera egin da. Bestetik, lehiaketa publiko bidez eman ziren irrati-zerbitzuak eskaintzeko lizentziei dagozkien beharrezko titulu juridikoak formalizatzearen ondorioz, estatuko administrazioan burutu behar diren izapideak gauzatzen jarraitu da.

Halaber, Gizarte Hedabideen zerbitzua ustez titulu juridikorik gabe egon daitezkeen irratien egoerari dagokionean aurretiazko eginbideak egiten aritu da.

Era berean, 13/2022 Lege Orokorra, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzkoa, indarrean sartzearen ondorioz, irrati komunitarioak erregularizatzeko prozesuaren hasiera nabarmentzekoa da.

Bestalde, hainbat autonomia-erkidegorekin hasitako harremanari eutsi zaio, ikus-entzunezko komunikazioaren sektoreari buruzko araubide juridiko berriaren azterketa teoriko-praktikoa egiteko eta, era berean, araudiaren garapen egokian aurrera egiteko.

## *2. RESOLUCIÓN DE LOS TÍTULOS JURÍDICOS DE PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS DE RADIO Y TELEVISIÓN*

*Durante el ejercicio resalta la labor desarrollada, en el ámbito de los medios de comunicación social. Por un lado, se ha avanzado en la resolución del concurso público correspondiente a una licencia de FM en Getxo. Por otro lado, se ha continuado con la necesaria formalización de los diversos trámites seguidos ante la Administración estatal competente, derivados del otorgamiento de los títulos jurídicos correspondientes a las licencias del servicio de comunicación radiofónica adjudicados mediante concurso público.*

*Asimismo, el servicio de Medios de Comunicación Social ha estado realizando actuaciones previas en relación con la situación de las emisoras que pudieran estar presuntamente sin el correspondiente título jurídico.*

*Destaca igualmente el inicio del proceso de regularización de las radios comunitarias, tras la entrada en vigor de la Ley 13/2022, General de Comunicación Audiovisual.*

*Por otro lado, se ha mantenimiento el contacto iniciado con diferentes Comunidades Autónomas para el estudio y análisis teórico-práctico del nuevo régimen jurídico relativo al sector de la comunicación audiovisual, para de igual modo avanzar en su correcto desarrollo normativo.*

## 3. SAILEKO ORGANO KUDEATZAILEEI LAGUNTZA EMATEA

### 3.1. Arlo Ekonomikoa

Kudeaketa ekonomikoa bi jarduera-ardatz nagusiren inguruan gauzatzen da, behin eta berriz:

Hainbat motatako txosten eta azterketak egitea, urteroko aurrekontuak lantzeari begira, goi-zuzendaritzari beharrezko tresnak eskuratzeko, gai honen inguruko erabakiak har ditzaten.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean programatu diren helburuekin bat etorriko den aurrekontu-gauzatzea helburu duten jarduerak garatu eta bultzatzea, eta informazioa eta kudeaketa-tresnak ematea hala goi-zuzendaritzari nola aurrekontua kudeatzen dutenei.

### 3.2. Arlo Juridikoa

Aholkularitza Juridikoa arduratzen da gainerako zuzendaritza eta unitateei lege-aholkularitza emateaz, bai eta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura

## *3. PRESTAR APOYO A LOS ÓRGANOS DE GESTIÓN DEL DEPARTAMENTO*

### *3.1. Área Económica*

*De forma recurrente la gestión económica se realiza en torno a 2 grandes ejes de actuación:*

*Elaboración de informes y análisis de diverso índole que se realizan cara a la confección de los presupuestos anuales, con el fin de facilitar a la alta dirección las herramientas necesarias en el proceso de toma de decisiones en esta materia.*

*Desarrollo e impulso de actuaciones que tienen por finalidad una ejecución presupuestaria acorde con los objetivos programados en cada ejercicio presupuestario, suministrando información y herramientas de gestión tanto a la Alta Dirección como a los diferentes gestores del presupuesto.*

### *3.2. Área Jurídica*

*La Asesoría Jurídica es la encargada de prestar asesoramiento legal a las demás direcciones y unidades del Departamento, así como de realizar las funciones que,*

organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuarekin lotuta, Sailaren aholkularitza juridikoa den aldetik dagozkion eginkizunak egiteaz ere.

Hain zuzen ere, eskudantzia horien esparruan egin dira, den-denak jasotzeko asmorik gabe, honako jarduketa hauek: txosten juridikoak –nahitaezkoak zein aukerakoak–; gora jotzeko errekurtsoen eta aukerako berraztertzeko errekurtsoen ebazpen-proposamenak; Administrazioaren ondare-erantzukizuna erreklamatzeko espedienteak izapidetu eta ebatzi dira.

Horrez gain, Aholkularitza Juridikoaren ardura da kontratazio-prozedurak diseinatu eta izapidetzea, beti ere kontratu txikiak ez badira. Atal honetan sartzen da kontratua gauzatu bitartean sor daitezkeen gorabehera juridikoak ebaztea, baita bermea ezereztea eta itzultzea ere, behin prestazioa adostasunez jaso eta berme-epea amaitu ondoren.

Espediente judizialei dagokienez, Aholkularitza Juridikoa arduratzen da Auzibide Zuzendaritzarekin, epaitegiekin eta auzitegiekin harremanetan jartzeaz. Horren ondorioz, jatorrizko administrazio-espedientearen bi ale bidaltzeaz gain, honako zeregin hauek ere egin dira: interesdunak epatzea –banakakoak edo orokorrak, kasuaren arabera–, ahozko epaiketaren araberako epatzeak; Sailaren uzien aurkako epaiak betearaztea; epaiketa-kostuak kobratzea.

Aholkularitza Juridikoak, Gobernu Kontseiluaren gai-zerrendan sartu beharreko dokumentazioa behar bezala bidaltzeko, Sailaren eta Gobernu Idazkaritzaren arteko harremanak bideratzen ditu, eta, horretarako, Zuzendaritza sustatzaile bakoitzak aplikazio interlokutorioan txertatzen duen edukia gainbegiratzen du –Gobernu Kontseilura behin betiko bidali aurretik–.

Azkenik, bere jarduerak garatzean, Zuzendaritza sustatzaileekiko harreman zuzenari esker, irizpide eta parametro homogeneoak finkatu dira espediente-tipologia desberdinen izapidetzean eta Sailaren barneko eta kanpoko jardunean.

3.3. Arlo Informatikoa

Sailaren Zuzendaritzetarako hainbat informazio-sistema garatu dira, haien beharrei erantzuteko; hainbat zerbitzu e-administraziora egokitzeko lanean gabiltza; EJIEri egindako enkarguen hileroko kontrola eta jarraipena egiten dugu, behar bezala egikaritzen ari dela egiaztatzeko eta behar den kasuetan doikuntzak egiteko; Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko web-ataria kudeatu da ere bai, eta datu pertsonalen babesa dela eta, hainbat aldaketa ezberdin burutu ditugu.

3.4. Langileen Atala

Langileriaren gaineko araudiari jarraiki, Sailari atxikitako

*de conformidad con el Decreto 73/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en relación con el Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco, le corresponden en tanto que asesoría jurídica del Departamento.*

*Precisamente, en el marco de esas atribuciones se han realizado, sin ánimo de ser exhaustivos, las siguientes actuaciones: informes jurídicos –tanto preceptivos como facultativos–; propuestas de resolución de recursos de alzada y recursos potestativos de reposición; se han tramitado y resuelto expedientes de reclamación de responsabilidad patrimonial de la Administración.*

*Adicionalmente, la Asesoría Jurídica tiene encomendada la tramitación de los expedientes de contratación relativos a contratos que, por no ser contratos menores, conllevan el diseño y tramitación de un procedimiento de contratación. Se incluye en este apartado la resolución de las vicisitudes de índole jurídica que puedan surgir durante la ejecución del contrato, así como la cancelación y devolución de la garantía, una vez recepcionada de conformidad la prestación y finalizado el plazo de garantía.*

*Con relación a los expedientes judiciales, la Asesoría Jurídica es la encargada de relacionarse tanto con la Dirección de lo Contencioso, como con los juzgados y tribunales. Ello comporta no solo el envío, por duplicado, del expediente administrativo original, sino que también se han realizado las siguientes tareas: emplazamientos a los interesados –individuales o generales, según el supuesto–, emplazamientos a vista de juicio oral; ejecución de las sentencias desfavorables a las pretensiones del Departamento; cobro de costas judiciales.*

*La Asesoría Jurídica, con vistas a homogeneizar el correcto envío de la documentación que proceda incluir en el orden del día de Consejo de Gobierno, canaliza las relaciones del Departamento con Secretaría de Gobierno, para lo cual realiza la comprobación del contenido que cada Dirección promotora inserta en la aplicación interlocutora –con carácter previo a la definitiva remisión a Consejo de Gobierno–.*

*Por último, en el desarrollo de sus actividades, la relación directa con las dependencias promotoras ha contribuido a fijar criterios y parámetros homogéneos en la tramitación de las diferentes tipologías de expedientes, y en la actuación interna y externa del Departamento.*

*3.3. Área Informática*

*Se han desarrollado diversos sistemas de información para las distintas Direcciones del Departamento con el fin de dar respuesta a sus necesidades; se está continuando el trabajo para las adaptaciones de diversos servicios a la e-administración; se realiza un seguimiento mensual de los encargos a EJIE, para comprobar su ejecución y realizar ajustes en los casos necesarios; también se ha gestionado el portal del Departamento de Cultura y Política Lingüística, y se han llevado a cabo diversas acciones derivadas de la protección de datos de carácter personal.*

*3.4. Área de Personal*

*Se han gestionado, de acuerdo a la normativa vigente en*

langileriaren lan arloko eta ordainsarien inguruko baldintzak kudeatu dira.

*materia de personal, las condiciones laborales y retributivas del personal adscrito al Departamento.*

## 4. EUSKARA-PLANA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA (HIZKUNTZA NORMALKUNTZA)

## *4. IMPULSAR Y COORDINAR EL PLAN DE EUSKERA (NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA)*

VI. Plangintzaldiko (2018-2022) Euskararen Erabilera-planaren bosgarren eta azken urtea izan da 2022a.

*2022 ha sido el quinto y último año del VI. Plan de Uso del Euskera (2018-2022).*

Urtero moduan, zuzendaritza bakoitzak kudeaketa-plan bat landu du, eta 2022. urtean, plan horretan jasotako ekintzak egin ditugu.

*Como cada año, las direcciones del departamento trabajan anualmente un plan de gestión, y en 2022 hemos realizado las actividades previstas en dicho plan.*

Urteko kudeaketa-planak adosteko eta baloratzeko, hainbat bilera egin ditugu zerbitzuetako arduradun eta zuzendariekin. Plangintzaldiaren azken urtea izanda, ekain aldean bilerak egin genituen zuzendaritza guztietako langileekin planaren garapenaren balorazio bat egiteko.

*Hemos realizado numerosas reuniones con los directores y jefes de servicio, a fin de acordar y valorar los planes de gestión anuales. Al ser el último año del VI. Periodo de Planificación, a mediados de año realizamos reuniones con los trabajadores de todas las direcciones para valorar el desarrollo del plan.*

Urte bukaeran, Siadecok galdetegi bat pasatu zion langileen lagin bati, 2018an egindako galdera berberekin. Oraingo honetan emandako emaitzekin ikusi ahal izan dugu zein izan den euskararen erabileraren bilakaera bost urte hauetan. Emaitzak, oro har, onak izan dira.

*A finales de año, Siadeco pasó un cuestionario a una muestra de trabajadores, el mismo que en 2018. Los resultados nos han permitido valorar cuál ha sido la evolución del uso del euskera en estos cinco años. Los resultados, en general, han sido satisfactorios.*

Egunero “Bost minutuko ikastaroa” sortu eta zabaltzen dugu.

*Creación y difusión diaria de “Bost minutuko ikastaroa”.*

Urtero bezala, prestakuntza orokorra euskaraz jasotzeko egitasmoa.

*Como todos los años, seguimos fomentando la realización de los cursos de formación general en euskera.*

Orain arte ere harrera-protokolo bat egiten genuen sailera sartzen ziren langile berriekin. Aurten sendotu egin dugu protokolo hori, eta Berdintasun Unitatearekin batera harrera-bilera bat egiten dugu. Bertan, zerbitzu-zuzendaria, langileen zuzendariak eta sartutako lankideak elkartzen ditugu berdintasun- eta hizkuntza-irizpideen berri emateko.

*Hemos reforzado el protocolo de acogida al personal nuevo en el departamento que realizábamos hasta ahora. Junto con la Unidad de Igualdad, hacemos una reunión en la que están presentes la directora de servicios, los directores correspondientes y el nuevo personal, a fin de darles a conocer los criterios lingüísticos y de igualdad.*

Kontratuetan berdintasun- eta hizkuntza-klausulak txertatzeko proiektu bat jarri dugu abian. Sailean urtero errepikatzen diren kontratu batzuk aukeratu eta aztertzen ari gara. 2021ean hasitako ekimenarekin jarraitu dugu 2022ko urtearen hasieran.

*Iniciativa destinada a la inserción de cláusulas lingüísticas y de igualdad en los contratos más repetidos del departamento. En el comienzo del año 2022, hemos continuado con el proyecto iniciado en 2021.*

Euskararen erabilera hobetzeko, gure lan-hizkuntza izan dadin, mota guztietako prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eskaini diegu lankideei.

*A fin de mejorar el uso del euskera, con el objetivo de que sea nuestra lengua de trabajo, hemos ofrecido todo tipo de ayuda, formación y asesoría.*

## 5. SAILEKO POLITIKA GUZTIETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO PROZESUA BULTZATZEA ETA KOORDINATZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN SAILEKO BERDINTASUNERAKO PLANAREN BITARTEZ

## *5. IMPULSAR Y COORDINAR EL PROCESO DE INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN TODAS LAS POLÍTICAS DEL DEPARTAMENTO A TRAVÉS DEL PLAN PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES DEPARTAMENTAL*

2022an, Sailaren Berdintasunerako Plan Estrategikoa egin da, 2022-2024 epealdirako. Sailaren plangintza berri horrekin bat etorriz, urteko 4 plangintza diseinatu dira 2022rako, Sailaren lan-eremu bakoitzeko bat: Kultura; Hizkuntza Politika; Jarduera Fisikoa eta Kirola, eta Zerbitzu Zuzendaritza eta Kabineteko Zuzendaritza. Hori guztia, Sailaren barruan eratutako 8 berdintasun-talde politiko eta teknikoekin koordinatuta.

*A lo largo de 2022 se ha elaborado el Plan Estratégico de Igualdad del Departamento, para el periodo 2022-2024. En consonancia con este nueva Planificación Departamental se han diseñado 4 planificaciones anuales para el año 2022, una por cada ámbito de intervención del Departamento: Cultura, Política Lingüística; Actividad Física y Deporte, y Dirección de Servicios y Gabinete. Todo ello en coordinación técnica y política con los 8 grupos departamentales de igualdad técnicos y políticos constituidos en el seno del Departamento.*

2022an Zerbitzu Zuzendaritzako eta Kabineteko

*En 2022 se han creado dos grupos nuevos compuestos*

Zuzendaritzako teknikariek eta politikariek osatutako bi talde berri sortu dira.

Sail barruko koordinazioari dagokionez, aurten 3 bilera politiko eta 6 bilera tekniko-politiko egin dira talde horiekin. Bileren edukia, funtsean, honako hauetan oinarritu da: Sailaren Berdintasunerako Plan Estrategikoa egitea; urteko kudeaketa-planen diseinua, jarraipena eta ebaluazioa; eta genero-ikuspegia sartzea 2023ko aurrekontuetan.

2022 Planeko ekintzen jarraipena egin da, eta horiek diseinatzeko eta gauzatzeko aholkularitza eman da. Era berean, 2021eko ekintzen ebaluazioa koordinatu da, eta horien berri eman da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren jarraipen- eta ebaluazio-aplikazioan.

Azkenik, aipatu behar da 5 prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintza antolatu direla, saileko langileentzat eta karguentzat:

1. BERDINTZEN bekak aurkezteko tailerra (3 ordu).
2. Kontratu publikoetan berdintasun-klausulei buruzko tailerra (5 ordu).
3. Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko hausnarketa-saioa (5 ordu).
4. Sexu-jazarpenari eta sexuagatiko/generoagatiko jazarpenari buruzko sentsibilizazio-ekintza (5 ordu).
5. Hizkuntza inklusiboaren ikastaroa (5 ordu).

## 6. SAILEKO ESTATISTIKA-LANTZEA

Helburu hori betetzeko estatistika-lanak honako eginkizun hauetan gauzatu dira:

Aurreikusitako txosten teknikoak egin dira.

Sailaren estatistika programaren barruko eragiketa estatistiko ofizialak garatu dira:

- 020703: Inkesta Soziolinguistikoa.
- 020709: Euskararen aurrekontuak.
- 020711: Helduen euskalduntzearen estatistika: ikasleak eta euskaltegiak.
- 020713: Euskararen gizarte-azpiegitura publikoen eta pribatuen zentsua.
- 070191: Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan.
- 070196: Irakurketa-sare publikoko liburutegien estatistika.
- 070198: Arteen eta kultura-industrien estatistika.
- 070202: EAEko sormen industrien estatistika.
- 070222: Kirol ohiturak Euskal AEn.

*por el personal técnico y político de la Dirección de Servicios y de la Dirección de Gabinete.*

*En cuanto a la coordinación intradepartamental hay que señalar que este año se han realizado 3 reuniones políticas y 6 reuniones técnico-políticas con los mencionados grupos. El contenido de las reuniones ha estado fundamentalmente centrado en: la elaboración del Plan Estratégico de Igualdad del Departamento; el diseño, seguimiento y evaluación de los planes de gestión anual y la inclusión de la perspectiva de género en los Presupuestos 2023.*

*Se ha realizado seguimiento de las acciones del Plan 2022 y prestado asesoramiento para su diseño y ejecución. Así mismo se ha coordinado la evaluación de las acciones del 2021 y se ha dado reporte de estas en el aplicativo de seguimiento y evaluación del VII Plan de Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE.*

*Finalmente mencionar que se han organizado un total de 5 acciones formativas y de sensibilización dirigidas al personal del departamento y a los cargos:*

1. *Taller de presentación de las becas BERDINTZEN (3 horas).*
2. *Taller sobre cláusulas de igualdad en los contratos públicos (5 horas).*
3. *Sesión de reflexión sobre la diversidad sexual y de género (5 horas).*
4. *Acción de sensibilización sobre acoso sexual y acoso por razón de sexo/género (5 horas).*
5. *Curso sobre lenguaje inclusivo (5 horas).*

## *6. ELABORAR LA ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL*

*Para el cumplimiento de este objetivo, los trabajos estadísticos se han concretado en las siguientes realizaciones:*

*Se han elaborado los informes técnicos previstos.*

*Se han desarrollado las operaciones estadísticas oficiales incluidas en el programa estadístico departamental:*

- *020703: Encuesta Sociolingüística.*
- *020709: Presupuestos del euskera.*
- *020711: Estadística de la enseñanza de euskera a personas adultas: alumnado y euskaltegis.*
- *020713: Censo de infraestructuras sociales del euskera, públicos y privados.*
- *070191: Financiación y gasto público en cultura.*
- *070196: Estadística de las bibliotecas de la red de lectura pública.*
- *070198: Estadística de las artes e industrias culturales.*
- *070202: Estadística de las industrias creativas de la CAE.*
- *070222: Hábitos deportivos en la C.A. de Euskadi.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 4512 KIROLAK | *4512 DEPORTES* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE ACTIVIDAD FÍSICA Y DEPORTE* |

**HELBURUA**

1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA
2. EUSKADI AKTIBOA SUSTATU
3. EUSKAL KIROLA BERDINTASUNEZ
4. KIROLA EUSKADIREN IKUR

***OBJETIVO***

*1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO*
*2. PROMOVER UNA EUSKADI ACTIVA*
*3. DEPORTE VASCO EN IGUALDAD*
*4. DEPORTE COMO SÍMBOLO DE EUSKADI*

**BETETZE MAILA**

1. KIROL EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA SUSTATZEA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legearen Aurreproiektua izapidetzen jarraitu dugu, etorkizunerako nahi dugun jarduera fisikoaren eta kirolaren eredua txertatuz. Gobernu Kontseiluak onartu ondoren Eusko Legebiltzarrean izapidetu da.

2. Kiroleko Dopinaren aurkako Legea aldatzeko lege-aurreproiektua izapidetzen jarraitu da, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren kode berrira egokitzeko abenduan onartu eta argitaratu arte.

3. Euskadiko 46 federaziok laguntzak jaso dituzte urteko euren egitarauetarako. Adierazi behar da 47 eskaera aurkeztu direla, Kalifikazio Batzordeak aztertu dituela kirol proiektuak eta 46i eman zaie laguntza ekonomikoa. Horietako bat ukatu egin da, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik.

4. Euskal Kirol Federazioen Batasunari dirulaguntza eman zaio, euskal federazioak berrantolatzeko eta optimizatzeko, eta euskal selekzioak sustatu eta kanpoan proiektatzeko.

5. Kirol Erakundeen Erregistroari buruzko 14/1998 Legea garatzen duen Dekretua ez da izapidetu, oraindik ez baita haren digitalizazioa amaitu, eta interesgarria izango litzateke horri buruzko gai guztiak jasotzea.

6. Kirolaren Euskal Eskola sustatu da on line prestakuntza indartuz Kanpus Birtualaren garapena indartuz 365 egunetan zehar.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

*1. IMPULSAR UNA REFLEXIÓN SOBRE EL MODELO DEPORTIVO*

*1. Se ha continuado con la tramitación del Anteproyecto de Ley de Actividad física y del Deporte del País Vasco incorporando el modelo de actividad física y deporte que queremos a futuro. Tras su aprobación en Consejo de Gobierno se ha llevado a cabo la tramitación en el Parlamento Vasco.*

*2. Se ha continuado con la tramitación del Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley contra el dopaje en el Deporte para adaptarla al nuevo código de la Agencia Mundial Antidopaje hasta su aprobación y publicación en el mes de diciembre.*

*3. 46 Federaciones vascas han recibido ayudas para sus programas anuales. Ha de señalarse que se han presentado 47 solicitudes, cuyos proyectos deportivos han sido valorados por la Junta Calificadora y se han concedido ayudas económicas a 46. Una de ellas ha sido denegada por incumplir los requisitos exigidos.*

*4. Se ha subvencionado a la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, para la reorganización y optimización de las federaciones vascas y potenciación de las selecciones vascas y su proyección exterior.*

*5. No se ha tramitado el Decreto de desarrollo de la Ley 14/1998, en relación con el Registro de Entidades Deportivas ya que aún no se ha finalizado la digitalización del mismo y sería interesante recoger todas las cuestiones relativas a la misma.*

*6. Se ha potenciado la Escuela Vasca del Deporte a través del reforzamiento de la formación on line con el desarrollo durante 365 días del Kampus Online Virtual.*

7. Kirolaren Euskal Eskolak, 2022an, prestakuntzarako eginkizunari eutsi dio kirolean, eta 28 prestakuntza-jarduera antolatu ditu guztira (6.785 parte-hartzaile: 4.284 gizon eta 2.501 emakume), kirol-federazioek sustatutako entrenatzaileentzako 29 ikastaro baimenduz eta gainbegiratuz, eta prestakuntza-izaerako jarduerak, dokumentuak eta berriak hedatuz hainbat komunikazio-kanalen bidez (informazio-buletina, web-orria, kirol-sare sozialak) eta Euskadiko hainbat eragileri zuzendutako aholkularitza.

*7. La Escuela Vasca del Deporte ha mantenido a lo largo de 2022 su función formadora en el deporte, organizando un total de 28 actividades formativas (6.785 asistentes: 4.284 hombres y 2.501 mujeres), autorizando y supervisando un total de 29 cursos de entrenadores y entrenadoras promovidos por las federaciones deportivas, difundiendo tanto actividades como documentos y noticias de carácter formativo a través de sus diferentes canales de comunicación (boletín informativo, página web, redes sociales) y asesoramiento a las diferentes entidades y agentes del deporte de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

8. 3 I+G+B proiektu definitu dira: Eskola-kirolak helduaroan jarduera fisikoaren praktika-mailan duen eragina aztertzea; 2016-2022 azterketa konparatiboa, kirol-lanbideen ezarpenari eta ezaugarriei buruzkoa; Garapen akademikoak euskal kirolarien kirol-ibilbidean duen eragina aztertzea.

*8. Se han definido 3 proyectos de I+D+I: Estudio del impacto del deporte escolar en el nivel de práctica de actividad física en edad adulta; Estudio comparativo 2016-2022 de implantación y características de profesiones del deporte; Estudio de la influencia del desarrollo académico en la trayectoria deportiva de los deportistas vascos.*

9. Europako Side Hustle programan parte hartzea, kirol-karrerarekin batera prestakuntza/okupazioko estrategiak eta ibilbideak garatzeko.

*9. Participación en el programa Europeo Side Hustle de desarrollo de estrategias e itinerarios de formación/ocupación paralelo a la carrera deportiva.*

## 2. EUSKADI AKTIBOA SUSTATU

1. Aurreko bi urteetan ez bezala, 2022an Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoak ospatu dira, 20 kirol modalitateetan, 2.637 ikaslek parte hartu dutelarik (1.088 neska eta 1.549 mutil).

2. Desgaitasunen bat duten kirolarien partaidetzarik ez da egon.

3. Deustuko Unibertsitatearekin batera, 2022ko Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketak antolatu dira Basaurin, 20 kirol modalitateetan, 560 unibertsitate ikaslek parte hartu dutelarik (300 gizonezko eta 260 emakumezko).

4. Eskola Kirolaren Euskal Batzordeak bilera bat egin du. Era berean, Batzorde Teknikoa beste 9 aldiz bildu da.

5. MUGIMENT egitasmoa betetzen jarraitu dugu. 53 erakunde berri gehitu dira egitasmora eta 153 sustatzaile izatera iritsi gara. Tokian-tokiko 25 sare eta 31 orientazio zerbitzutan parte hartu dugu. Active Healthy Kids Global Alliance-k Euskal ume eta nerabe aktibo eta osasuntsuak 2021 txostenari “Best Report Card” saria eman dio, 57 herrialdeen artean aukeratuz. Era berean, Eusfit Mugiment sasoi fisikoaren zaintza sisteman 51 ikastetxek eta 87 irakaslek parte hartu dute.

6. “Mugiment Txartela” proiektua 73 udalerritara zabaldu da. Proiektua: Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritako kirol-instalazioak txartel bakar batekin erabiltzeko aukera eskaintzea euskal herritarrei, aldez aurretik proiektuaren parte den udal kiroldegiren batean txartela eskuratuta.

## *2. PROMOVER UNA EUSKADI ACTIVA*

*1. A diferencia de los dos años anteriores, en el 2022 se han vuelto a celebrar los Juegos Deportivos Escolares de Euskadi en 20 modalidades deportivas, con una participación de 2.637 escolares (1.088 chicas y 1.549 chicos).*

*2. No ha habido participación de deportistas con discapacidad.*

*3. Se han organizado, junto con la Universidad de Deusto los campeonatos de Euskadi de Deporte Universitario 2022 celebrados en Basauri, en 20 modalidades deportivas, con una participación de alrededor de 560 estudiantes (300 hombres y 260 mujeres).*

*4. Se ha realizado una reunión de la Comisión Vasca de Deporte Escolar. Asimismo, la Comisión Técnica se ha reunido en otras 9 ocasiones.*

*5. Se ha continuado con la ejecución del Proyecto MUGIMENT. Se han incorporado 53 nuevas entidades promotoras, y ya se alcanza la cifra total de 153. Se ha participado en 25 redes locales y 31 servicios de orientación. El informe 2021 de infancia y adolescencia vasca activa y saludable ha recibido el premio de Active Healthy Kids Global Alliance, siendo elegido “Best Report Card” entre 57 países. Del mismo modo 51 centros escolares y 87 docentes han participado en Eusfit Mugiment, el sistema de monitorización de la condición física.*

*6. Se ha ampliado el proyecto “Mugiment Txartela” a un total de 73 municipios. Proyecto consistente en ofrecer a la ciudadanía vasca la posibilidad de utilizar las instalaciones deportivas de diferentes municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi con una única tarjeta, obtenida previamente en uno de los centros deportivos municipales parte del proyecto.*

## 3. EUSKAL KIROLA BERDINTASUNEZ

1. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza eta Basque Team-en genero-ikuspegia txertatzeko 2020-2024 Estrategia garatu da, eta 2023rako ekintzak programatu dira.

2. Emakumeetan eta kirol arloan espezializatutako 3 forotan parte hartu da.

3. Emakumeei eta kirolari buruzko material espezifikoa sortu eta zabaldu da. Era berean, generoari buruzko prestakuntza-ikastaroak egin dira Zuzendaritzako langileentzat.

4. Lantalde teknikoa dinamizatzen jarraitu da.

5. Kirol arloko sexu jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari buruz informatu eta arreta emateko berariazko zerbitzua ematen jarraitu da, "Zure taldekoak gara/Somos de tu equipo", telefonoz eta idatziz informazioa eta aholkularitza emanez, eta aurrez aurreko lehen arreta eskainiz, hala eskatuz gero.

6. Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako Kirolaren Euskal Plana lantzen jarraitu da, proiektua diruz lagunduz, GaituzSportekin eta Kirol Egokituaren Euskal Federazioarekin batera.

7. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin kirol esparruan euskara sustatzeko proiektuak ezberdinak bultzatu dira.

8. Hainbat azterlan eta ikerketa egin dira: kiroleko sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko argitalpen zientifikoen berrikuspenaren txosten tekniko bat egin da eta jazarpena hautemateko galdetegi bat baliozkotu; eta 6-16 urte bitarteko unibertsitate-adineko gazteek kirol-jardunean hautematen eta esperimentatzen duten indarkeria aztertzeko lehen analisia.

## *3. DEPORTE VASCO EN IGUALDAD*

*1. Se ha desarrollado la Estrategia 2020-2024 para la introducción de la perspectiva de género de la Dirección de Actividad Física y Deporte y Basque Team, programando las acciones para el 2023.*

*2. Se ha participado en 3 foros especializados en mujeres y deporte.*

*3. Se ha creado material específico sobre mujeres y deporte y se ha difundido. De igual manera, se han realizado cursos formativos dirigidos al personal de la Dirección en materia de género.*

*4. Se ha continuado dinamizando el grupo de trabajo técnico.*

*5. Se ha continuado ofreciendo el servicio especializado de información y atención ante el abuso y el acoso sexual y acoso por razón de sexo en el ámbito deportivo, "Zure taldekoak gara/Somos de tu equipo" dando información y asesoramiento telefónico y escrito, ofreciendo un primer acompañamiento presencial si así fuese solicitado.*

*6. Se sigue trabajando en el Plan Vasco de Deporte para personas con diversidad funcional, apoyando económicamente el Proyecto junto con GaituzSport. y la Federación Vasca de Deporte Adaptado.*

*7. Junto con la Viceconsejería de Política Lingüística, se han dinamizado proyectos para el fomento del euskara en el ámbito deportivo.*

*8. Se han llevado a cabo diferentes estudios e investigaciones: informe técnico de la revisión de publicaciones científicas sobre acoso sexual y acoso por razón de sexo en el deporte y validación de un cuestionario de detección del mismo, y un análisis exploratorio de la violencia percibida y experimentada por jóvenes en edad universitaria durante su práctica deportiva entre los 6 y los 16 años.*

## 4. KIROLA EUSKADIREN IKUR

1. Eskaerak aztertu dira, 113 kirolari (43 gizonezko eta 70 emakumezko), 20 teknikari (13 gizonezko eta 7 emakumezko) eta goi mailako 10 epaile (guztiak gizonezkoak) kalifikatu eta aitortu dira, eta bitan argitaratu dira zerrendak. Goi-mailako kirolari emandako laguntzak Basque Team Fundazioaren bidez bideratzen dira, eta fundazio horren memorian jasota daude.

2. Aurten EAEko 2 goi mailako zentro birdefinitu eta arautu dira: Donostiako Aldapeta Maria Ikastetxeko Badmintoneko Teknifikazio Zentrua eta Mahai Teniseko Sonia Etxazarreta Teknifikazio Zentrua.

3. Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroko (HTZ) teknikarien eta Euskadiko kirol federazioen artean modu koordinatuan lan egiten jarraitu da.

4. 24 erakunderi eman zaie diru-laguntza kategoria absolutuko nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, eta beste bosti kategoria goreneko emakumeen estatuko

## *4. DEPORTE COMO SÍMBOLO DE EUSKADI*

*1. Se han examinado las solicitudes, calificado y declarado 113 deportistas (43 hombres y 70 mujeres), 20 técnicos y técnicas (13 hombres y 7 mujeres) y 10 jueces (todos hombres), de alto nivel, siendo publicadas las listas en dos ocasiones. Las ayudas al deporte de alto nivel se canalizan a través de la Fundación Basque Team en cuya memoria se recogen.*

*2. Este año se han redefinido y ordenado 2 centros de alto nivel en la CAE: el Centro de Tecnificación Deportiva de Bádminton del Colegio Aldapeta Maria Ikastetxea de San Sebastián y El Centro de Tecnificación Deportiva de Tenis de Mesa Sonia Etxazarreta.*

*3. Se ha continuado con el trabajo de coordinación entre el personal técnico del Centro de Perfeccionamiento Técnico (CPT) de Fadura y las federaciones deportivas vascas.*

*4. Se ha subvencionado a 24 entidades para financiar la participación en competiciones oficiales de carácter internacional en categoría absoluta y a otras 5 en ligas*

ligetan parte hartzeko. Horren emaitzak nazioarteko ekitaldietan parte hartzea baldintzatzen du.

5. Goi mailako nazioarteko 28 ekintza antolatzeko dirulaguntzak eman dira.

6. Foru-Aldundiekin lanean jarraitu da, kirolari promesa eta talentuen jarraipena egiteko eta kirolari horiei laguntzeko. Hala, 2022an, talentudun 36 kirolari identifikatu dira: 13 gizon eta 23 emakume, horietatik 20ri balorazioak eginez; 6 gizonezko eta 14 emakumezko.

7. Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak kiroleko dopinaren aurka borrokatzen jarraitu du, eta Dopinaren Aurkako Munduko Agentzian sartzeko kudeaketak egin dira.

8. Kirol-federazioekin lankidetzan, kiroleko dopinaren aurkako programa garatu da, eta 313 lagin jaso dira 85 probatan.

9. Gure kirol autoktonoak sustatzeko beharrezkotzat jotzen diren Pilota, Arraun eta Herri Kiroletako ekintza estrategikoak diruz lagundu dira.

10. EAEn kanpo-proiekziorako potentziala duten 7 kirol-ekitaldi antolatzen lagundu da.

11. Europako 2022ko itsasoko arraun txapelketak antolatu dira.

12. Basque Country marka bultzatu da, 18 ekitalditan publizitatea txertatuz.

*estatales de mujeres, de máxima categoría, cuyo resultado condiciona la participación en eventos internacionales.*

*5. Se ha subvencionado la organización de 28 eventos internacionales de Alto Nivel.*

*6. Se ha continuado cooperando con las Diputaciones Forales en el seguimiento y ayuda a las y los deportistas talentos y promesas. En 2022 se han identificado 36 deportistas como talentos: 13 hombres y 23 mujeres, realizándose valoraciones a 20 de ellos, 6 hombres y 14 mujeres.*

*7. La Agencia Vasca Antidopaje ha continuado con su labor de lucha contra el dopaje en el Deporte y se han realizado gestiones para su integración en la Agencia Mundial Antidopaje.*

*8. En colaboración con las Federaciones Deportivas se ha desarrollado el programa contra el dopaje en el deporte, habiéndose realizado 313 recogidas de muestras en 85 pruebas.*

*9. Se han subvencionado las acciones estratégicas de Pelota, Remo y Herri Kirolak que se consideran necesarias para la promoción de nuestros deportes autóctonos.*

*10. Se ha colaborado en la organización de 7 eventos deportivos en la CAE con potencial de proyección exterior.*

*11. Se han organizado los campeonatos de Europa de Remo de mar 2022.*

*12. Se ha potenciado la marca Basque Country a través de la inserción de publicidad en 18 eventos.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4513 KULTURAREN SUSTAPENA | *4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| KULTURA SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE CULTURA* |
| KULTURA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DE LA CULTURA* |

**HELBURUA**

KULTURA GOBERNANTZA

1. GOBERNANTZAREN EREMU GUZTIETAKO ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONTZEA: ORDENATZEA ETA PARTEKATZEA.

SORKUNTZA / EKOIZPENA

2. EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA INDARTZEA.

3. EUSKAL KULTURAREN IKUSGARRITASUNA HANDITZEA.

4. BERRIKUNTZAREN SUSTAPENAREN BITARTEZ KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK SUSTATZEA.

KULTURA ZABALTZEA

5. GIZARTEAN KULTURA HEDATZEKO SISTEMA PUBLIKOAK INDARTZEA.

***OBJETIVO***

*GOBERNANZA CULTURAL*

*1. PROFUNDIZAR EN LA CORRESPONSABILIDAD EN TODOS LOS ÁMBITOS DE LA GOBERNANZA: ORDENAR Y COMPARTIR.*

*CREACIÓN / PRODUCCIÓN*

*2. REFORZAR LA CREACIÓN Y PRODUCCIÓN DE LA CULTURA VASCA.*

*3. AUMENTAR LA VISIBILIDAD DE LA CULTURA VASCA.*

*4. PROFUNDIZAR EN EL SECTOR DE LAS INDUSTRIAS CULTURALES Y CREATIVAS A TRAVÉS DE LA PROMOCIÓN DE LA INNOVACIÓN.*

*DIFUSIÓN DE LA CULTURA*

*5. REFORZAR LOS SISTEMAS PÚBLICOS PARA DIFUNDIR LA CULTURA EN LA SOCIEDAD.*

**BETETZE MAILA**

KULTURA GOBERNANTZA

1. GOBERNANTZAREN EREMU GUZTIETAKO ERANTZUNKIDETASUNEAN SAKONTZEA: ORDENATZEA ETA PARTEKATZEA.

1.1. Kulturaren ezagutza tresnak, politika kulturalen erdigunean jartzea (Kulturaren Euskal Behatokia, KEB).

a. Kulturaren sustapenaren eremuan estatistika-eragiketa kopurua urtean (KEB): 2022an informazioa sortzeko lanarekin jarraitu da, estatistika-serieei egonkortasuna ematen diena, perspektiba, sendotasuna eta, baita ere, konparagarritasuna bermatuz. Estatistikaren esparrua hurrengo honako estatistika lanek osatu egin dute: "Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturan 2020" eta “Finantzaketa eta Gastu Publikoa Sormen-industrietan 2020”. Bietan lortutako datuak aztertu, interpretatu eta argitaratu, eta, hurrenez hurren, zazpigarren eta lehenengo edizioak izan dira. "Arte eta Kultura- eta Sormen-Industrien Estatistika 2022”: zortzigarren edizioko landa-lana burutu da.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

*GOBERNANZA CULTURAL*

*1. PROFUNDIZAR EN LA CORRESPONSABILIDAD EN TODOS LOS ÁMBITOS DE LA GOBERNANZA: ORDENAR Y COMPARTIR.*

*1.1. Poner las políticas de conocimiento en el centro de las políticas culturales (Observatorio Vasco de la Cultura, OVC).*

*a. Número anual de operaciones estadísticas del ámbito de promoción de la cultura (OVC): En el 2022 se ha continuado con el trabajo regular de generar información, lo que proporciona estabilidad a las series estadísticas, aportando perspectiva, consistencia y comparabilidad. El ámbito estadístico ha estado determinado por los siguientes trabajos estadísticos: “Estadística de Financiación y Gasto Público en Cultura 2020” y “Estadística de Financiación y Gasto Público en Sectores Creativos 2020”. En ambos, trabajos de análisis, interpretación y publicación, de la séptima y primera edición respectivamente. “Estadística sobre las Artes e Industrias Culturales y Creativas 2022”: se ha realizado el trabajo de campo de la octava edición.*

b. Kulturaren sustapenaren eremuan ikerketa eta azterketa kopurua urtean (KEB): Luzetarako panela: beste edizio bat gauzatu da, zortzigarrena, 204 panelistek osatutako "Kultura Ohitura eta Kontsumo panela", eta dagozkion dokumentuak argitaratu egin dira: Ohituren Panelaren Buletina eta datuen analisi-txostena. Eustatek eta Lanbidek 2021eko Euskadiko kultura-enpresa eta kontratuei buruz emandako datuak ustiatu dira Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin batera. Azterlan kualitatiboak: “Dantza profesionalei buruzko inkesta”, “Covid-19 krisiaren behatokiaren itxiera”, “Kultura eta jasangarritasuna” eta “Kultura eta Osasuna” eta “EAEko erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta kultura- eta sormen-fundazioen azterketa”.

c. KSI-en eremuan estatistika-eragiketa eta ikerketa eta azterketa kopurua urtean (KEB): "Sormen Industrien Estatistika 2020": estatistika honen lehenengo edizioa argitaratu da.

d. Ondarearen eremuan estatistika-eragiketa eta ikerketa eta azterketa kopurua urtean (KEB): "Finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika kulturan 2020": 2022. urtean lehenengo edizioa argitaratu da.

e. Adierazle-sisteman eguneratutako adierazle kopurua urtean (KEB): 162.

f. Genero jarraipenerako adierazle kopurua (KEB): 2022. urtean 16 genero adierazle eguneratu dira guztira.

g. Hizkuntza politiken jarraipenerako adierazle kopurua (KEB): 2022an hizkuntza-politiken 10 adierazle eguneratu dira guztira.

h. Behatokiaren estatistika-emaitzen hartzaile kopurua urtean (KEB): 1.200 eragile.

1.2. Parte hartzen duten eragileekin lankidetzan eta erantzunkidetasunean sakontzea.

a. Mahai eta plataforma sektorialekin lan-bilera kopurua urtean: 7.

b. KEB-en jardunaldi eta lan-topaketa kopurua urtean: 12 jarraipen eta koordinazio bilera.

c. Genero ikuspegia berariaz txertatuta duten proiektuen kopurua: 3

1.3. Administrazio Publikoen arteko koordinazioa indartzeko HAKOBA indartzea.

a. Erakundearteko taldearen lan-bilera kopurua urtean: 3.

b. Kulturaren Euskal Kontseiluaren osoko bilera kopurua urtean: 2022an Kulturaren Euskal Kontseilua ez da batu.

c. Espazio artistikoetan genero-berdintasuneko nazio-planaren gaineko urteroko lan saio-kopurua: 0

*b. Número anual de investigaciones y estudios realizados en el ámbito de promoción de la cultura (OVC): Panel longitudinal: se ha realizado una nueva oleada, la octava, del “Panel de Hábitos y Consumo Cultural”, constituido por 204 panelistas, y se han emitido los correspondientes documentos: Boletín del Panel de Hábitos e informe de análisis de los datos. Se ha realizado la explotación de los datos proporcionados por Eustat y Lanbide de las empresas y contratos culturales de Euskadi en el 2021 junto a Orkestra-Instituto Vasco de Competitividad. Investigaciones cualitativas: “Encuesta sobre profesionales de la danza”, “Cierre del Observatorio de la crisis Covid-19”, “Cultura y sostenibilidad”, “Cultura y Salud” y “Análisis de los organismos autónomos, sociedades públicas y fundaciones culturales y creativas de la CAE”.*

*c. Número anual de operaciones estadísticas e investigaciones y estudios realizados en el ámbito de las ICC (OVC): “Estadística de Sectores Creativos 2020”. Publicación de la primera edición de esta estadística.*

*d. Número anual de operaciones estadísticas e investigaciones y estudios realizados en el ámbito del patrimonio (OVC): “Estadística de Financiación y Gasto Público en Cultura 2020”: en el 2022 se ha publicado la primera edición de la misma.*

*e. Número anual de indicadores actualizados en el sistema de indicadores (OVC): 162.*

*f. Número de indicadores de seguimiento de género (OVC): En 2022 se han actualizado un total de 16 indicadores de género.*

*g. Número de indicadores de seguimiento de políticas lingüísticas (OVC): En 2022 se han actualizado un total de 10 indicadores de políticas lingüísticas.*

*h. Número anual de personas receptoras de resultados estadísticos del observatorio (OVC): 1.200 agentes.*

*1.2. Ahondar en la cooperación con los agentes implicados y la corresponsabilidad.*

*a. Número anual de sesiones de trabajo con las mesas o plataformas sectoriales: 7.*

*b. Número anual de jornadas y encuentros de trabajo de OVC: 12 reuniones de seguimiento y coordinación.*

*c. Número anual de proyectos con perspectiva de género explícitamente incorporada: 3*

*1.3. Reforzar HAKOBA para aumentar la coordinación entre Administraciones Públicas.*

*a. Número anual de sesiones de trabajo de Grupo Interinstitucional: 3.*

*b. Número de reuniones del Pleno del Consejo Vasco de la Cultura: en 2022 el Consejo Vasco de la Cultura no se ha reunido.*

*c. Número anual de sesiones de trabajo sobre el plan nacional de igualdad de género en espacios artísticos: 0.*

SORKUNTZA / EKOIZPENA

2. EUSKAL KULTURAREN SORKUNTZA ETA EKOIZPENA INDARTZEA.

2.1. Sorkuntza sustatzea eta ahalbidetzea.

a. Lagundutako koreografia-pieza berrien kopurua urtean: sorkuntza/ikerketa koreografikoko 6 proiektu babestu dira guztira.

b. Lagundutako musika-sorkuntza berrien kopurua urtean: Kultura Sorkuntzaren dirulaguntzen deialdiaren bidez, musika-konposizioaren modalitatearen barruan 12 proiektu berri lagundu ziren.

c. Sortutako gidoi zinematografiko berrien kopurua urtean: 8. 6 proiektu diruz lagundu dira, 30 urtetik gorako gidoilarien gidoietarako, edo 30 urtetik beherakoa izanik, dagoeneko zinema-areto komertzialetan erakusteko moduko film luzeren batean gidoilari agertu direnen gidoietarako, eta 30 urtetik beherakoa izanik pelikularik estreinatu ez dutenen kasuan 2 proiektu diruz lagundu dira.

d. Lagundutako antzerki-testu berrien kopurua urtean: 8. 4 testu gaztelaniaz eta 4 testu euskaraz.

e. Arte plastiko eta ikusizkoetan sorkuntza eta ekoizpenerako lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 40. Sorkuntza-ekoizpenean 40 proiektu diruz lagundu dira.

f. Literaturan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 10. 5 gazteentzako literatura testuak sortzeko eta 5 ipuin edo eleberri motzak idazteko.

g. Ilustrazioan diruz lagundutako proiektu berrien kopurua urtean: 7.

Aurten ere laguntza izendun hauekin jarraitu da eta Berpiztu funtsetatik eratorritako beste batzuk (4.1. ataletik 4.7. atalera):

- Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, urteko programa garatzeko eta ikerketa bekentzako.
- Santa Maria Katedrala Fundazioa, Katedralaren Plan Zuzentzailea egikaritzen jarraitzeko.
- Añanako Gatz Haranaren Fundazioa, Gatzagen Plan Zuzentzailea egikaritzen jarraitzeko: Gatz Haranaren berreskuratzea, paisaiarena eta funtzionala.
- Euskal Herriko Unibertsitatea. Kultura Paisaiak eta Ondarea Katedra.
- Aranzadi Zientzia Elkartea, bere urteko jarduerak egiteko.
- Albaola elkartea. Itsas Kultur Faktoria (Pasaia) (Berpiztu programa. ZAP).
- Sestaoko Udala. Labe Garaiaren balioa nabarmentzea (Berpiztu programa. ZAP).
- Urduñako eta Artziniegako udalak, Berpiztu programak Aiaraldea eskualdeari ematen dizkion laguntzen esparruan. Urduña eta Artziniegako hiribilduen kultura-ondareari balioa ematea.
- Arabako Foru Aldundia. Iruña/*Veleia*ko aztarnategiaren balioa ematea.
- Oyón-Oiongo Udala. Labrazako harresiaren iparraldeko horma sendotzea eta Plan Zuzentzailea berrikustea.
- Zanbranako Udala. Lanos Gaztelua, egiturak premiaz sendotzea Ocion, Zanbrana.
- Getariako Udala. Zarauzko dorretxea birgaitzea eta Juan Sebastian Elkanori buruzko interpretazio-zentroa sortzea. Proiektua idaztea.

*Un año más se ha continuado con las siguientes ayudas nominativas y otras nuevas derivadas de los fondos Berpiztu (apartados 4.1. a 4.7.):*

- *Fundación José Miguel de Barandiaran, para el desarrollo de su programa anual y becas de investigación.*
- *Fundación Catedral de Santa María, para continuar con la ejecución del Plan Director de la Catedral.*
- *Fundación del Valle Salado de Añana, para continuar con la ejecución del Plan Director de las Salinas: recuperación paisajística y funcional del Valle Salado.*
- *Universidad del País Vasco. Cátedra Paisajes Culturales y Patrimonio.*
- *Sociedad de Ciencias Aranzadi, para el desarrollo de sus actividades anuales.*
- *Asociación Albaola. Itsas Kultur Faktoria (Pasaia) (Programa Berpiztu. ZAP).*
- *Ayuntamiento de Sestao. Puesta en valor del Alto Horno (Programa Berpiztu. ZAP).*
- *Ayuntamientos de Orduña y Artziniega en el marco de las ayudas del programa Berpiztu a la comarca Aiaraldea. Puesta en valor del patrimonio cultural de las villas de Orduña y Artziniega.*
- *Diputación Foral de Álava. Puesta en valor del yacimiento de Iruña / Veleia.*
- *Ayuntamiento de Oyón-Oion. Consolidación del muro norte de la muralla de Labraza y revisión del Plan Director.*
- *Ayuntamiento de Zambrana. Consolidación urgente de las estructuras Castillo de Lanos en Ocio, Zambrana.*
- *Ayuntamiento de Getaria. Rehabilitación de la casa-torre de Zarautz y creación de un centro de interpretación sobre Juan Sebastián Elcano. Redacción del proyecto.*

g) Jendearentzako arreta.

Arlo honetan Kultura Ondareari lotutako 388 kontsulta guztira artatu dira (Arabako 105, Bizkaiko 152, Gipuzkoako 50 eta EAEtik kanpokoak 81) (3.2. atala). Era berean, esportatzeko artelanen 10 ziurtagiri igorri dira (1.6. atala) eta arkeologia-materialen 20 piezetako multzo bat lekuz aldatzea baimendu da, laginak aztertzeko edo aldi baterako erakusketetan parte hartzeko (1.7. atala).

*g) Atención al público.*

*En este ámbito se han atendido un total de 388 consultas relacionadas con el Patrimonio Cultural (105 de Álava, 152 de Bizkaia, 50 de Gipuzkoa y 81 de fuera de la CAV) (apartado 3.2.). Además, se han expedido un total de 10 certificados de obras de arte para su exportación (apartado 1.6.) y se ha autorizado el traslado de un conjunto de 20 colecciones de materiales arqueológicos para el análisis de muestras o para su participación en exposiciones temporales (apartado 1.7.).*

## 2. EUSKADIKO MUSEOEN SISTEMA GARATZEA

a) Euskadiko erreferentziazko museoetan parte hartu eta laguntzea.

Dirulaguntza izendunen kopurua mantendu dugu, baita museoek jasotzen duten diru kopurua ere.

b) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan museo eta bilduma berrien inskribatzea sustatzea eta integratutako museoen jarduerak burutzen laguntzea.

2022an ez da museo edo bilduma berririk integratu, baina aurrerapauso handiak eman dira 2023an hainbat erakunde integratzeko, bereziki arte bildumak.

c) EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/Sistema Informático de Museos de Euskadi izeneko plataforman eta kudeaketa-tresnan museo eta bilduma berriak sartzea.

2022an Eusko Jaurlaritzako Industria Ondare bilduma integratu da sistema informatikoan. Dena den, 2023an espero dira integrazioak 2022an egindako lanaren eta hobekuntzen emaitza izango dira.

d) Euskadiko museoen sailkapena garatzea, eta Museo Etnografiko txikien eta Zientzia eta Teknika Museoen sareak sortzeko lehenengo urratsak ematea.

2022. urtean ez da aurrerapauso handirik egin alor honetan. Hala ere, euskal museoen, foru-erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko partaidetza- eta lankidetza-sare bat sortzea ahalbidetzen ari diren bi proiektu gauzatu dira: Irisgarritasun Lantaldea eta 3D Digitalizazio Proiektua.

e) Eusko Jaurlaritzaren artelanen bildumaren museo katalogoa bukatzea eta artelanen barne mugimenduak arautzeko protokoloa ezartzea.

Mugimenduak arautzeko protokoloa oraindik ezartu ez bada ere, “Gobernuaren Artea” katalogoa argitaratu zen

## *2. DESARROLLO DEL SISTEMA DE MUSEOS DE EUSKADI*

*a) Participar y apoyar de manera especial a los museos de referencia de Euskadi.*

*Se han mantenido el número de subvenciones nominativas, así como la cuantía recibida por cada museo de referencia.*

*b) Impulsar la inscripción de nuevos museos y colecciones en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi y apoyar las actividades de los museos integrados en dicho Registro.*

*En el año 2022 no se ha inscrito ningún museo ni colección, pero se ha trabajado para la integración de nuevas instituciones en 2023, especialmente de colecciones.*

*c) Integrar en la plataforma y herramienta de gestión EMSIME-Euskadiko Museoen Sistema Informatikoa/Sistema Informático de Museos de Euskadi a nuevos museos y colecciones.*

*En 2022 solo se ha integrado la Colección de Patrimonio industrial del Gobierno Vasco en el sistema informático. Aun así, las integraciones que se esperan en 2023 son fruto del trabajo y mejoras realizadas a lo largo del 2022.*

*d) Desarrollar la clasificación de los museos de Euskadi, y dar los primeros pasos para crear una red de pequeños Museos Etnográficos, y otra de Museos de la Ciencia y de la Técnica.*

*En 2022 no se han realizado grandes avances en este ámbito. En cualquier caso, se han llevado a cabo dos proyectos que están permitiendo crear una red de participación y colaboración entre los museos vascos, las instituciones forales y el Gobierno vasco: el Grupo de Trabajo de Accesibilidad y el Proyecto de Digitalización 3D.*

*e) Realizar el catálogo museológico de la colección de obras de arte del Gobierno Vasco y establecer protocolos que regulen los movimientos internos de dichas obras de arte.*

*Aunque todavía no se han establecido los protocolos que regulen los movimientos, en 2022 se consiguió publicar el*

2022an, eta Eusko Jaurlaritzaren arte bilduma genero-ikuspegitik aztertzeko aurrerapausoak eman dira.

*catálogo "El Arte de Gobierno", y se ha avanzado en el estudio de la colección de arte del Gobierno Vasco desde la perspectiva de género.*

f) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan dauden museoetako batzuk "Euskadiko Museo" izendatzeko lehen urratsak eman eta Euskadiko Museo Sistema Nazionalean sakontzea.

*f) Dar pasos para nombrar "Museo de Euskadi" algunos de los museos inscritos en el Registro de Museos y Colecciones de Euskadi y profundizar en el Sistema Nacional de Museos de Euskadi.*

Aldundiekin harremanetan jarraitzen dugu haien titulartasunekoak diren museoak Erregistroan inskribatu ahal izateko. Honek Euskadiko museoen mapa argiago bat edukitzea ahalbideratuko du.

*Seguimos en contacto con las Diputaciones para poder inscribir los museos de su titularidad en el Registro, lo que posibilitará una imagen más clara del mapa de los museos de Euskadi.*

g) Museotik, Euskadiko museoen plataforma berria.

*g) Nueva plataforma de museos de Euskadi: Museotik.*

2022an zehar, Museotik Euskadiko museoen plataforma berriaren garapenean, diseinuan eta edukien plangintzan lanean aritu gara.

*A lo largo del 2022 se ha estado trabajando en el desarrollo, diseño y planificación de contenidos de la nueva plataforma de Museos de Euskadi, Museotik.*

## 3. EUSKADIKO ARTXIBOEN SISTEMA GARATZEA

## *3. DESARROLLO DEL SISTEMA DE ARCHIVOS DE EUSKADI*

a) Legebiltzarrak ekainean onartu zuen Dokumentuen kudeaketa integralari eta Dokumentu Ondareari buruzko Legea, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin batera sustatu dugu.

*a) El Parlamento ha aprobado en junio la Ley de gestión documental integral y Patrimonio Documental, que hemos promovido junto con el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.*

Lege-testuak artxiboen politika kudeatzeko eskema berri bat planteatzen du. Horrek giza baliabide berriak esleitzera eta legeak garatzera behartzen gaitu, hiru dekreturekin. 2022an bi esparru horiek landu dira, eta hiru dekretuen zirriborroak idatzi dira: (1) Euskadiko Artxiboen Erregelamendua; (2) Dokumentazioa baloratu, hautatu eta garbitzeko Batzordea; (3) Artxiboen Aholku Batzordea.

*El texto legal plantea un nuevo esquema de gestión de la política de archivos. Esto nos obliga a atribuir nuevos medios humanos y a desarrollar la ley, con tres Decretos. En 2022 se ha trabajado estos dos ámbitos, y se han redactado los borradores de los tres Decretos: (1) Reglamento de los Archivos de Euskadi; (2) Comisión de valoración, selección y expurgo de documentación; (3) Consejo Asesor de Archivos.*

Legeak agindutakoa betez, Euskadiko Artxiboen Errolda berriaren bigarren zatia egin da, eliza katolikoaren artxibo historikoekin, oso ugariak baitira.

*Dando cumplimiento al mandato legal, se ha llevado a cabo la segunda parte del nuevo Censo de Archivos de Euskadi, con los archivos históricos de la iglesia católica, que son muy numerosos.*

b) Indarrean dauden zenbait muga gorabehera, Euskadiko Artxibo Historikoak (AHE) bere egoitzan kultura-ekitaldiak eta -jarduerak antolatzen edo egiten lagundu du. 2022an 480 ekitaldiak egin dira: bilerak, jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak, aurkezpenak, etab.

*b) A pesar de algunas limitaciones en vigor, el Archivo Histórico de Euskadi (AHE) ha organizado o colaborado en la celebración de eventos y actividades culturales en su sede. En 2022 se han celebrado 480 eventos: reuniones, jornadas, conferencias, cursos, presentaciones, etc.*

2022an eskola-bisiten programa jarri da martxan, eta arrakasta handia izan du. Bizkaiko ikastetxeek 13 bisita egin dituzte.

*En 2022 se ha puesto en marcha el programa de visitas escolares, que ha tenido un gran éxito. Se han celebrado 13 visitas de centros educativos de Bizkaia.*

Horrez gain, kultura zabaltzeko jarduera nagusiak Open House Bilbaon (238 bisitari jardunaldi batean) eta Ondarearen Jardunaldien Europako Programan (46 pertsona) parte hartzea izan da. 2021eko murrizketak kontuan hartuta, bi erakusketak mantendu dira gure argazki-funtsekin. Bata orokorra eta bestea fondoarekin Juantxu Rodriguez.

*Además de esto, las actividades principales de difusión cultural han sido la participación en Open House Bilbao (238 visitantes en una jornada) y en el Programa Europeo de las Jornadas de Patrimonio (una conferencia y dos visitas teatralizadas en la que participaron 46 personas). Habida cuenta de las restricciones de 2021, se han mantenido las dos exposiciones con nuestros fondos fotográficos. Una general y otra con el fondo Juantxu Rodriguez.*

2022an, Euskadiko Artxibo Historikoak artxibo-funtsak eskuratzeko politikarekin jarraitu du, eta dohaintzan bezala

*En 2022 el Archivo Histórico de Euskadi ha continuado con su política de adquisición de fondos de Archivo, y de*

gordailuan sartu da: Cristobal Balenciaga artxiboa, López Mendizabal artxibo-liburutegia, Jon Azua funtsa (Guggenheim-New Kork), Batzar Nagusietako Erregistroen bilduma (XVIII-XIX. mendeak).

*ingreso sea en depósito como en donación: archivo Cristóbal Balenciaga, archivo-biblioteca López Mendizabal, fondo Jon Azua (Guggenheim-New York), colección de Registros de Juntas Generales (siglos XVIII-XIX).*

c) 2022an gure webgunearen edukia nabarmen handitzen jarraitu da.

*c) En 2022 se ha continuado incrementando de forma significativa el contenido de nuestra página web.*

Dokukliken 366.000 irudi digitalak kargatu dira (aurreikusitako 200.000 irudien ordez), eta 107.000 dokumentu/espedienteren deskribapenak zuzendu eta zabaldu dira; horietatik 62.000 berriak dira.

*Se han cargado en dokuklik 366.000 imágenes digitales (en lugar de las 200.000 previstas) y se han corregido y ampliado las descripciones de 107.000 documentos /expedientes, de las que son nuevas 62.000.*

Besteren funtsak zein Artxiboaren funts propioak dira: Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoaren inbentario analitikoa, 1. fasea; Arabako Erantzukizun Politikoen Auzitegia (1937 – 1948), Euskal Diasporaren artxiboa, Arabako 20 udal, administrazio-batzar eta kontzeju; Bizkaiko 3 udalak eta Gipuzkoako 7; Indalecio Prietoren, Juantxu Rodríguez argazkilariaren eta Federico Krutwig-Txema Larrearen artxibo pertsonalak; Mandasko Dukearen epistolarioa eta Bonaparte Funtsa. Diaz de Mendibil, Busturiako Artechezuria-Castells, Markinako Vidarte dorrea eta Lizarriturri familiak. Real Automovil Club, Artzain txakur txapelketak (EHATE); Gipuzkoako Atletismo Federakuntza eta Valladolideko Real Chancillería (Kultura Ministerioa).

*Se trata tanto de fondos ajenos como de fondos propios del Archivo: Inventario analítico del Archivo histórico del Gobierno Vasco, Fase 1; Tribunal de Responsabilidades políticas de Álava (1937 – 1948), Archivo de la diáspora vasca, 20 Ayuntamientos, Juntas administrativas y Concejos de Álava; 3 ayuntamientos de Bizkaia y 7 de Gipuzkoa; archivos personales de Indalecio Prieto, el fotógrafo Juantxu Rodríguez, y Federico Krutwig-Txema Larrea; epistolario del Duque de Mandas y Fondo Bonaparte. Familias Diaz de Mendibil, Artechezuria-Castells de Busturia, Torre Vidarte de Markina y Lizarriturri. Real Automóvil Club, Artzain txakur txapelketak (EHATE); Gipuzkoako Atletismo Federakuntza y Real Chancillería de Valladolid (Ministerio de Cultura).*

2022an, webguneak 62.823 erabiltzaile izan ditu, eta 201.335 lan-saio sortu ditu, 32 minutu batez beste, eta 4,2 milioi orrialde bisitatu ditu guztira. 2021eko zifrekin alderatuta, % 30eko igoera globala izan da. Aurten ere berretsi da badator bilatzailea kultur zerbitzu arrakastatsua dela eta artxibo historikoen bilatzaileen nazioarteko panoraman ondo kokatuta dagoela. Euskadiko artxiboak ikertzeko erreferente gisa finkatu da.

*En 2022 el sitio web ha tenido 62.823 usuarios, que han generado 201.335 sesiones de trabajo con una media de 32 minutos y un total de 4,2 millones de páginas visitadas. Supone un incremento global de un 30 % respecto a las cifras de 2021. Un año más se confirma que el buscador badator es un servicio cultural de éxito y bien situado en el panorama internacional de buscadores de archivos históricos. Se ha consolidado como el referente para la investigación en los archivos de Euskadi.*

Artxiboak, gainera, kontsulta-zerbitzua eskaintzen du, bai erabiltzaileen gelan, bai telefonoz edo posta elektronikoz. 2022an 739 kontsulta pertsonalizatu artatu dira guztira.

*El Archivo ofrece además un servicio de consulta, tanto en la sala de usuarios como por teléfono o email. En 2022 se han atendido un total de 739 consultas personalizadas.*

d) Ondare dokumentalaren zabalkundea ezinezkoa litzateke aurrez deskribatu, digitalizatu edota web atarian jarri barik.

*d) La difusión del Patrimonio Documental es imposible sin su descripción, digitalización e ingreso en el portal web.*

Horretarako, 2022an zehar EAHak Euskadiko Artxiboen Sistemari laguntzeko programekin jarraitu du, bi diru-laguntza deialdiren bidez: artxibo publikoena, udal artxibo-sistemetako funtsak antolatzeko eta mantentzeko eta funtsak digitalizatzeko (60 proiektu diruz lagundu dira aurkeztutako 83tik, 57 toki-entitate ordezkatzen dituztelarik); eta bestetik, publikoak ez diren artxiboena, hauek deskribatzeko eta digitalizatzeko (17 proiektu diruz lagundu dira aurkeztutako 20 programetatik, 14 entitate ordezkatzen dituztelarik). Diruz lagundutako lanen ondorioz sortutako materialen zati handi bat dokuklik-era pasatzen da.

*Para ello, el AHE ha continuado en 2022 con los programas de apoyo al Sistema de Archivos de Euskadi, a través de dos órdenes de subvención: una dirigida a entidades públicas para la organización de fondos y mantenimiento de sistemas de archivos municipales y entidades locales, así como digitalización de los fondos documentales (60 proyectos que representan a 57 entidades locales, de 83 presentados), y la convocatoria para descripción y digitalización de archivos no públicos (17 proyectos, que representan a 14 entidades, de 20 presentados). Una parte importante de los materiales generados como resultado de los trabajos subvencionados pasan a dokuklik.*

Horrez gain, Artxiboaren funts propioak digitalizatzeko kontratu bat izapidetu da. 140.000 kopia digitalak egin dira eta 2023an web orrira igoko dira.

*Además de ello, se ha tramitado un contrato para la digitalización de fondos propios del Archivo, con el resultado de 140.000 copias digitales que se subirán a la página web en 2023.*

e) 2022an 18 diru-laguntza izendun eman dira (2021ean baino 2 gehiago) funtsak deskribatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko artxibo erdi publiko edo pribatu nagusi batzuk kudeatzeko: Euskal Filmategia, Eresbil musika artxibategia, elizbarrutiko hiru artxiboak, Sabino Arana Fundazioa, Mario Onaindia Fundazioa, Ramón Rubial Fundazioa, Blas de Otero Fundazioa, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, EHBEren Xenpelar Dokumentazio Zentroa (XDZ) eta Artxiboen, Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen Profesionalen Euskal Elkartea (ALDEE), prestakuntza-ikastaroak antolatzeko. Era berean, diru-laguntza izendun bat eman zaie Arabako Koadrilei, Arabako eskualdeko artxibo-sarearen funtzionamendua bermatzeko, ia lurralde osoa hartzen baitu. Izapidetu da ere dirulaguntza zuzen bat Jakin Fundazioari, Juan San Martin Ortiz de Zarateren produkzio bibliografikoa eta fotografikoa digitalizatzeko eta sarean jartzeko.

*e) En 2022 se han concedido 18 subvenciones nominativas (2 más que en 2021) para la descripción de los fondos y la gestión de algunos de los principales archivos semipúblicos o privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco: Filmoteca Vasca, archivo musical Eresbil, tres archivos diocesanos, Fundación Sabino Arana, Fundación Mario Onaindia, Fundación Ramón Rubial, Fundación Blas de Otero, Fundación Benedictinos de Lazkao, Centro de Documentación Xenpelar de EHBE (XDZ) y Asociación Vasca de Profesionales de Archivos, Bibliotecas y Centros de Documentación (ALDEE) para la organización de cursos de formación. Asimismo, se ha concedido una subvención nominativa a las Cuadrillas Alavesas para garantizar el funcionamiento de la red de archivos de la Comarca Alavesa, que abarca prácticamente todo el territorio. También se ha tramitado una subvención directa a la Fundación Jakin para la digitalización y puesta en red de la producción bibliográfica y fotográfica de Juan San Martín Ortiz de Zárate.*

2022an dokumentazioa baloratzeko eta garbitzeko programarekin jarraitu da lanean.

*En 2022 se ha continuado trabajando con el programa de valoración y expurgo de documentación.*

Alde batetik, COVASADE Dekretuaren zirriborroa prestatu da eta aholkularitza juridikora bidali da.

*Por una parte, se ha preparado el borrador del Decreto COVASADE y se ha enviado a asesoría jurídica.*

Bestetik, EAEko Administrazio Orokorraren eta toki-administrazioaren esparruko dokumentu-serieak identifikatzeko, baloratzeko eta hautatzeko 283 fitxa onartu dira.

*Por otra, se han aprobado 283 fichas de identificación, valoración y selección de series documentales del ámbito de la Administración General y de la administración local de la CAE.*

Era berean, dokumentu-serieak baloratzeko eta Justizia Administrazioaren garbiketa-politika kudeatzeko programarekin jarraitu da. 2022an zehar, 2019an garbitutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusitik etorritako dokumentazioa kontserbatzeko proposamena egin da. Proposamen hori aurreko ekitaldietan egindako serie judizialen azterketak kontuan hartuta egin da.

*Así mismo, se ha continuado el programa de valoración de series documentales y de gestión de la política de expurgo de la administración de Justicia. A lo largo de 2022 se ha elaborado una propuesta de conservación de la documentación expurgada en 2019 y procedente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Esta propuesta se ha llevado a cabo teniendo en cuenta los análisis de series judiciales efectuados en ejercicios anteriores.*

2022an Argazkiola programarekin jarraitu da, Euskal Autonomia Erkidegoko argazki-artxiboen funtsak berreskuratu, digitalizatu eta zabaltzeko. Germán Elorza eta Juantxu Rodriguez argazkilariaren bildumak landu dira.

*En 2022 se ha continuado con el programa Argazkiola, para la recuperación, digitalización y difusión de los fondos de archivo fotográficos de la Comunidad Autónoma. Se han trabajado las colecciones Germán Elorza y la del fotógrafo Juantxu Rodriguez.*

## 4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA

## *4. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS*

1. “iDarte” Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolako liburutegiaren funts osoa Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartzea.

*1. Integración de todo el fondo de la biblioteca de la Escuela de Arte y Superior de Diseño “iDarte” a la Red de Lectura Pública de Euskadi.*

2. 2022. urtean zehar jasotako aldizkako argitalpenak katalogatzea eta araztea.

*2. Catalogación y depuración de las publicaciones periódicas recibidas durante el año 2022.*

3. Lege Gordailuaren bulegoen bidez 2022an jasotako dokumentuak katalogatzea.

*3. Catalogación de los documentos recibidos a través de las oficinas de Depósito Legal durante el año 2022.*

4. 2022an garbiketa bidez jasotako materiala katalogatzea.

*4. Catalogación del material recibido por expurgo durante el año 2022.*

5. Dohaintzen bidez jasotako materiala sailkatzea eta katalogatzea (Mario Onaindia Fundazioa, Euskodok,

*5. Clasificación y catalogación del material recibido por medio de donaciones (Fundación Mario Onaindia,*

etab.).

6. Lege Gordailuaren bulegoen bidez jasotako eta Absysnet-en katalogatzen ez diren funtsaren sailkapena, erregistroa eta antolamendua.

7. Katalogo bibliografikoaren 6.981 erregistro bikoiztu baino gehiago araztea.

8. Sareko liburutegiak xahuketatik eratorritako 7.824 obra-erregistro katalogatzea, Lege Gordailua osatzeko eta 5.000 biztanletik beherako liburutegi publikoei katalogatzea.

9. Euskal liburutegietako lineako katalogo kolektiboa (Bilgunea) mantentzea, eustea eta berritzea, 3.420.000 erregistro baino gehiago dituena.

10. Autoritateen Katalogo Elebiduna (Aubi) mantentzea eta hari eustea. Katalogo horrek 295.384 erregistro baino gehiago ditu.

11. Autoritateen datu-base elebiduneko 3.067 gai eta autoritate araztea, zuzentzea, transferitzea eta itzultzea.

12. Bikoiztutako 30.000 irakurle-erregistro ezabatzea.

13. Funtsen zuzkidura. Aurreko ekitaldietan bezala, Sareko liburutegietako funtsak hornitzeko eta/edo berritzeko laguntzetarako deialdia egin da.

14. Haur eta gazteen irakurzaletasuna sustatzeko programak. Aurreko ekitaldietan bezala, Sareko liburutegien titularrentzako laguntzak deitu dira.

15. Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko eta/edo garatzeko laguntzak.

16. Next Generation dirulaguntza, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, 2022ko Euskadiko liburutegietako funtsak hornitzeko eta/edo berritzeko.

17. Estatistiken programa. 2022an EIPSko liburutegien 2021. urteko datu estatistikoak bildu dira.

18. Liburutegietarako material teknikoa. Sareko liburutegiei beren beharrak betetzeko eskatu duten berariazko material teknikoa eman die.

19. Gazteentzako youtuber lehiaketa, gazteentzako liburuak sare sozialetan zabaltzeko, bideoak sortuz eta youtubeko kanalera igoz.

20. 2.389 liburu digital erostea eLiburutegian mailegatzeko, euskal herritarrentzako mailegu digitalerako plataforman.

21. Prestakuntza-saio bat egitea: “Liburutegiak eta GIHak” (2022/03/16), EIPSeko liburutegietako profesionalentzat.

22. Prestakuntza-tailer bat antolatzea: “2023ko Euskadiko Irakurketa Ekintza Plana” (2022/11/30), EIPSko liburutegietako profesionalentzat.

*Euskodok, etc.).*

*6. Clasificación, registro y ordenación del fondo recibido a través de las oficinas de Depósito Legal y que no se catalogan en Absysnet.*

*7. Depuración de más de 6.981 registros duplicados del catálogo bibliográfico.*

*8. Catalogación de 7.824 registros de obras procedentes de expurgo de bibliotecas de la Red para completar el Depósito Legal y catalogación a las bibliotecas públicas de menos de 5.000 habitantes.*

*9. Mantenimiento, soporte y renovación del Catálogo Colectivo en línea (Bilgunea) de las Bibliotecas vascas que cuenta con más de 3.420.000 registros.*

*10. Mantenimiento y soporte del Catálogo Bilingüe de Autoridades (Aubi) que cuenta con más de 295.384 registros.*

*11. Depuración, corrección, transferencia y traducción de 3.067 materias y autoridades de la base de datos bilingüe de autoridades.*

*12. Eliminación de 30.000 registros de personas lectoras duplicadas.*

*13. Dotación de fondos. Como en ejercicios anteriores, se han convocado ayudas para la dotación y/o renovación de los fondos de las bibliotecas de la Red.*

*14. Programas de promoción de la lectura infantil y juvenil. Como en ejercicios anteriores, se han convocado ayudas en este sentido para titulares de bibliotecas integradas en la Red.*

*15. Ayudas para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas públicas integradas en la Red.*

*16. Subvención Next Generation para la dotación y/o renovación de fondos de bibliotecas de Euskadi 2022, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea.*

*17. Programa de estadísticas. En 2022 se han recogido los datos estadísticos de las bibliotecas de la RLPE correspondientes al año 2021.*

*18. Material técnico para bibliotecas. Se ha proporcionado a las bibliotecas de la Red el material técnico específico que han solicitado para cubrir sus necesidades.*

*19. Concurso de youtuber dirigido a jóvenes para la difusión de libros juveniles en las Redes sociales creando vídeos y subiéndolos al canal de youtube.*

*20. Compra de 2.389 libros digitales para préstamo en eLiburutegia, la plataforma de préstamo digital para la ciudadanía vasca.*

*21. Realización de una sesión de formación: “Bibliotecas y ODS” (16/03/2022) dirigido a los profesionales de las bibliotecas de la RLPE.*

*22. Organización de un taller de formación: “Plan de Acción Lectora Euskadi 2023” (30/11/2022) dirigido a los profesionales de las bibliotecas de la RLPE.*

23. Filmen online mailegu digitaleko zerbitzua eLiburutegiaren bidez, 15.000 bistaratze baino gehiagorekin.

24. Aldizkarien online mailegu digitaleko zerbitzua eLiburutegiaren bidez, 1.400 mailegu baino gehiagorekin.

25. Sareko liburutegietako langileei laguntza teknikoa ematea, 35.000 kontsulta baino gehiagori erantzuteko.

26. Lege-gordailuaren kudeaketa Euskadin.

*23. Servicio de préstamo digital online de películas a través de eLiburutegia con más de 15.000 visualizaciones.*

*24. Servicio de préstamo digital online de revistas a través de eLiburutegia con más de 1.400 préstamos.*

*25. Soporte técnico al personal de las bibliotecas de la Red respondiendo a más de 35.000 consultas.*

*26. Gestión del Depósito Legal en Euskadi.*

## 5. EUSKAL KULTURA-ONDAREA FORMATU DIGITALEAN SUSTATZEA ETA ZABALTZEA

a) Euskal kultura-ondareko baliabideak deskribatzeko baliabideak gehitzea.

2020/2021 euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko diru laguntzaren onuradunek egindako proiektuei dagozkien erregistroak sartu dira, 6.910 erregistro, kultura-ondarearen baliabideen deskribapen bibliografikoekin, eta horien artean, funtsean, material testuala eta grafikoa aurki daitezke.

Salvador Aspiazu funtseko 1.000 bat argazkiren erregistroak ere sartu dira, Gasteizko Udalaren Artxibotik ateratakoak.

b) Euskal kultura-ondareko baliabideak digitalizatzea.

EAEko hainbat erakunderen argazki- eta kartel-funtsak digitalizatu dira: 16.800 erregistro.

c) Euskal kultura-ondarearen digitalizazioa sustatzea.

Euskal kultura-ondarea katalogatzeko, digitalizatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko agindu bat jarri da abian, OAI_PMH (22/23) gordailuen bidez, euskal kultura-ondareko baliabideak digitalizatzeko. Agindu horretan, fundazioek, liburutegiek, museoek, argitaletxeek eta ermandadeek sustatutako 6 programa aurkeztu dira, eta horien bidez Euskarianan sartzea aurreikusten da, 10.194 erregistro.

Euskal kultura-ondarea OAI_PMH 2021/22 gordailuen bidez katalogatu, digitalizatu, kontserbatu eta zabaltzeko aginduaren bidez diruz lagundutako proiektuekin egindako lanen emaitzak jaso dira. 16 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 9 baino ez dira gauzatu azkenean. Proiektu horiei esker, 23800 erregistro gehitu ahal izango dira, kultura-ondarearen baliabideen deskribapen bibliografikoekin. Erregistro horien artean, 2023an Euskarianan pixkanaka txertatuko diren testu-baliabideak, baliabide grafikoak, soinu-baliabideak eta ikus-entzunezko baliabideak aurki daitezke.

d) Euskal ondare digitala zaintzea eta Interneten zabaltzea sustatzea, bai Eusko Jaurlaritzaren baliabideei dagokienez, bai beste erakunde, enpresa eta partikularrei dagokienez.

## *5. FOMENTO Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL VASCO EN FORMATO DIGITAL*

*a) Incorporar recursos descriptivos de recursos de patrimonio cultural vasco.*

*Se han incorporado los registros correspondientes a los proyectos realizados por los beneficiarios de la subvención para la catalogación, digitalización, conservación y difusión del patrimonio cultural vasco 2020/2021, 6.910 registros con descripciones bibliográficas de recursos de patrimonio cultural, entre los que se puede encontrar fundamentalmente material textual y gráfico.*

*Se han incorporado también registros de unas 1000 fotos del fondo Salvador Aspiazu, procedentes del Archivo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.*

*b) Digitalizar recursos de patrimonio cultural vasco.*

*Se han digitalizado fondos fotográficos y de carteles propiedad de diferentes instituciones de la CAPV, 16.800 registros.*

*c) Fomentar la digitalización del patrimonio cultural vasco.*

*Se ha puesto en marcha una orden para la catalogación, digitalización, conservación y difusión del Patrimonio Cultural Vasco a través de repositorios OAI_PMH (22/23), con el objetivo de digitalizar recursos de patrimonio cultural vasco, a la que se han presentado 6 programas impulsados por fundaciones, bibliotecas, museos, editoriales y hermandades, por medio de los cuales se prevé incorporar a Euskariana, 10.194 registros.*

*Se han recibido los resultados de los trabajos realizados con los proyectos subvencionados mediante la orden para la catalogación, digitalización, conservación y difusión del patrimonio cultural vasco a través de repositorios OAI_PMH 2021/22. Se presentaron 16 proyectos, de los que finalmente solo se han ejecutado 9. Estos proyectos permitirán incorporar unos 23800 registros con descripciones bibliográficas de recursos de patrimonio cultural, entre los que se pueden encontrar recursos textuales, gráficos, sonoros y audiovisuales, que se van a ir incorporando progresivamente a Euskariana a lo largo del año 2023.*

*d) Fomentar la preservación del patrimonio digital vasco y su difusión en internet, tanto de recursos propios del Gobierno Vasco como de otras instituciones, empresas y*

Enpresekin eta adituekin harremanak izan ditu, kontserbazio digitaleko sistema bat inplementatzeko.

Euskarianaren sare sozialak martxan jarri dira Facebook, Twitter, Instagram eta YouTuben.

Euskariana sustatzeko eta hedatzeko publizitate-kanpaina bat diseinatu eta gauzatu da, diseinuan, errealizazioan eta marketin-produktuetan oinarritua. Kanpaina hori Berritzeguneen, liburutegien eta EAEko beste kultura-erakunde batzuen lankidetzaren bidez banatu da, Euskarianaren edukiak hainbat motatako publikoengana hurbiltzeko.

Harremanetan egon gara Open Data Euskadiren arduradunekin Euskarianaren datuak izen bereko atarian argitaratzeko.

e) Euskariana Euskadiko erakundeek, enpresek eta pertsona fisikoek kudeatutako gordailuen Europeanako agregatu bihurtzea, horretarako beharrezko tresna juridikoak erabiliz (hitzarmenak, etab.).

Europeanarekin harremanetan jarraitu dugu Liburuklik Euskariana proiektuaren aurreko atariaren edukiak ordezkatzeko. Europeanak dagoeneko egin du Liburukliken baliabide multzoaren lehen froga bilketa, eta 2023rako behin betiko bilketa egitea aurreikusten da. Ondoren, Euskarianan sartutako beste baliabide batzuk bilduko dira.

f) Lankidetza-programak sustatzea erakunde publiko eta pribatuekin, euskal kultura-ondareko baliabideen digitalizazioa sustatzeko.

Digitalizazio masiborako kontratu bat jarri da abian, EAEko beste erakunde batzuen (Aldundiak, Udalak eta Lazkao Fundazioa) jabetzako kultura-ondareko baliabideen lankidetzarekin eta ekarpenarekin. Horren bidez, prentsa historikoaren eta monografien 250.000 orrialde eta liburuxka eta eskuizkribu batzuk gehitzea aurreikusten da.

Harremanak izan dira eta lankidetza-lanak hasi dira beren baliabideak Euskarianan sartu nahi dituzten beste erakunde batzuekin: Euskalerriaren Adiskideen Elkartea, Arabako Foru Aldundiaren Artxiboa, Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Institutua, Gasteizko Udalaren Artxiboa eta Euskaltzaindia.

g) Euskal prentsa digitala gordailutzeko aplikazio bat sortzea.

Aplikazioa sortu da.

## 6. ZUZENDARITZARI AHOLKULARITZA JURIDIKOA EMATEA ETA JABETZA INTELEKTUALAREN ERREGISTROA KUDEATZEA

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak sustatutako lankidetza-hitzarmenak aztertu, berrikusi eta izapidetu dira. Zehazki,

*particulares.*

*Se han mantenido contactos con empresas y expertos para la implementación de un sistema de preservación digital.*

*Se han puesto en marcha las redes sociales de Euskariana en Facebook, Twitter, Instagram y YouTube.*

*Se ha diseñado y ejecutado una campaña publicitaria para la promoción y difusión de Euskariana, consistente en el diseño, realización y productos de marketing, que se han distribuido por medio de la colaboración de Berritzegunes, bibliotecas y otras instituciones culturales de la CAPV para acercar los contenidos de Euskariana a varios tipos de público.*

*Se han mantenido contactos con los responsables de Open Data Euskadi para publicar datos de Euskariana en el portal del mismo nombre.*

*e) Convertir Euskariana en agregado de Europeana de los repositorios gestionados por instituciones, empresas y personas físicas de Euskadi, utilizando para ello los instrumentos jurídicos necesarios (convenios, etc.).*

*Han continuado los contactos con Europeana para sustituir los contenidos de Liburuklik, portal antecesor del proyecto Euskariana. Europeana ha realizado ya la primera recolección de prueba del conjunto de recursos de Liburuklik y se prevé realizar a principios de 2023 la recolección definitiva, a la que seguirán otras de diferentes recursos incorporados a Euskariana.*

*f) Fomentar programas de cooperación con instituciones públicas y privadas para el fomento de la digitalización de recursos de patrimonio cultural vasco.*

*Se ha puesto en marcha un contrato de digitalización masiva con la colaboración y aportación de los recursos de patrimonio cultural propiedad de otras instituciones de la CAPV (Diputaciones, Ayuntamientos y Fundación Lazkao). Por medio del cual se prevé incorporar a Euskariana 250.000 páginas, de prensa histórica y monografías, además de algunos folletos y manuscritos.*

*Se han mantenido contactos y se han iniciado trabajos de colaboración con otras instituciones que quieren incorporar sus recursos en Euskariana: Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, Archivo de la Diputación Foral de Álava, Instituto de Estudios Vasco de la Universidad de Deusto, Archivo del Ayuntamiento de Vitoria y Euskaltzaindia.*

*g) Crear una aplicación para el depósito de la prensa digital vasca.*

*La aplicación ha sido creada.*

## *6. ASESORAMIENTO JURÍDICO A LA DIRECCIÓN Y GESTIÓN DEL REGISTRO DE LA PROPIEDAD INTELECTUAL*

*Se han analizado, revisado y tramitado los convenios de colaboración promovidos por la Dirección de Patrimonio*

2022. urtean, Aholkularitza Juridikoak honako hitzarmen hauek idazten parte hartu du (horietako batzuk onartuta daude jada, eta beste batzuk izapidetze-fase desberdinetan):

Txosten juridikoak egin dira eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzako zerbitzuek egindako kontsulta juridikoei erantzun zaie.

Irizpen juridiko horien artean, honako hauek aipatu behar dira: hirugarrenek liburutegi-txartelak erabiltzeko baimena; museoetan COVID pasaportea eskatzea; liburutegi publikoetako materiala (DVDak) erakundeetan erabiltzea; liburutegi publikoa plagioz kentzea; egile-eskubideak eta liburutegi publikoek antolatutako ate irekien jardunaldiak; babestutako kultura-ondasunen kasuan erantzukizun zibila; euskarri ez-elektronikoan dauden dokumentuak ezabatzea; kultura-ondasunak erosteko lehentasunez erosteko eskubidea erabiltzea (San Telmo jauregia; jabetza-erregistroan inskribatzea ukatzea jakinarazpenik eta lehentasunez erosteko eskubiderik ez dagoelako; kultura-ondasun higiezinen jabeen kontserbazio-betebeharra kontrolatzeko lana; hirugarrenek dirulaguntzetan oinarrituta egindako lanetarako sarbidea izatea.

Babes berezia eta ertaina duten kultura-ondasunen babes juridikorako egintzak eta arau-xedapenak landu dira. Zehazki, 2022an, kultura-ondasunak babesteko espediente hauek egiten lagundu da:

- Bergaran (Gipuzkoa) dagoen Arrizuriaga jauregia eta bertako loratégia babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzea, monumentu-multzo kategoriarekin.

- Babes ertaina duen kultura-ondasun deklaratzea, monumentu-multzo kategoriarekin, Iruña Okako (Araba) Badaiako Santa Katalina multzoa.

- Donostiako (Gipuzkoa) Victorio Luzuriaga SA enpresaren bulego eta zerbitzuen eraikina babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzea, monumentu kategoriarekin.

- Zeberioko (Bizkaia) Solatxi auzoko 6. zenbakian dagoen Urrutza baserria babes ertaineko kultura-ondasun deklaratzea, monumentu kategoriarekin.

- Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Vasco-Navarro trenbidea babes bereziko kultura-ondasun deklaratzea, monumentu-multzo kategoriarekin.

- Aldatzea 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeko dena.

- Bertsolaritza babes bereziko kultura-ondasun immaterial deklaratzea.

Aurrekoaz gain, parte-hartze aktiboa izan da kultura-ondarearen eremuari lotutako honako espediente hauen lanketan: Irungo Udalari Urdanibiako monumentu-multzoko

*Cultural. En concreto, a lo largo del año 2022, la Asesoría Jurídica ha participado en la redacción de los siguientes convenios, algunos de los cuales ya se encuentran aprobados y otros en distintas fases de su tramitación:*

*Se han emitido los informes jurídicos y se han atendido las consultas jurídicas formuladas por los distintos servicios de la Dirección de Patrimonio Cultural.*

*Entre dichos dictámenes jurídicos, debe hacerse mención de los siguientes: autorización de uso de carnés de biblioteca por terceras personas, exigencia de pasaporte COVID en museos, uso institucional de material (DVDs) de bibliotecas públicas, retirada de biblioteca pública de libro por plagio, derechos de autor y jornadas de puertas abiertas organizadas por bibliotecas públicas, responsabilidad civil en el caso de bienes culturales protegidos, eliminación de documentos en soporte no electrónico, ejercicio del derecho de tanteo para la adquisición de bienes culturales (Palacio san Telmo, denegación de inscripción en Registro de la Propiedad por falta de notificación y derechos de tanteo, labor de control del deber de conservación de los propietarios de los bienes culturales inmuebles, acceso por terceros a trabajos realizados en base a subvenciones.*

*Se han elaborado los actos y disposiciones normativas para la protección jurídica de los bienes culturales de protección especial y media. En concreto, durante el año 2022 se ha colaborado en la elaboración de los siguientes expedientes de protección de bienes culturales:*

*- Declaración como Bien Cultural de Protección Media, con la categoría de Conjunto Monumental, del palacio Arrizuriaga y su jardín, sito en Bergara (Gipuzkoa).*

*- Declaración de bien cultural de protección media, con la categoría de conjunto monumental, a favor del Conjunto de Santa Catalina de Badaia, de Iruña de Oca (Araba/Álava).*

*- Declaración como bien cultural de protección media, con la categoría de monumento, a favor del edificio de oficinas y servicios de la empresa Victorio Luzuriaga S.A., sito en San Sebastián (Gipuzkoa).*

*- Declaración como bien cultural de protección media, con la categoría de monumento, a favor del Caserío Urrutza ubicado en el barrio Solatxi número 6 de Zeberio (Bizkaia).*

*- Declaración como Bien Cultural de Protección Especial, con la categoría de Conjunto Monumental a favor del ferrocarril Vasco-Navarro a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco.*

*- Modificación del Decreto 2/2012, de 10 de enero, por el que se califica como Bien cultural calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, el Camino de Santiago a su paso por la comunidad Autónoma del País Vasco.*

*- Declaración del Bertsolarismo como Bien Cultural Inmaterial de Protección Especial.*

*Además de lo anterior, se ha tomado parte activa en la elaboración de los siguientes expedientes vinculados al ámbito del patrimonio cultural: la concesión en favor del*

jauregia, errota eta burdinola okupatzeko eta erabiltzeko emakida ematea, baita multzo horren barruko espazio guztiak ere, eta Langraiz Okako (Araba) Iruña-*Veleia* Oppiduma kontserbatzeko eta balioesteko lanak finantzatzea.

*Ayuntamiento de Irún, de la ocupación y el uso del palacio, del molino y de la ferrería pertenecientes al conjunto monumental de Urdanibia, así como de todos los espacios comprendidos dentro del mismo, y la financiación de trabajos destinados a la conservación y puesta en valor del Oppidum Iruña-Veleia, sito en Nanclares de la Oca (Álava).*

Administrazio-kontratazioaren esparruan, Aholkularitza Juridikoak jarduera garrantzitsu bati eusten dio 2022an, eta lankidetzan aritu da memoriak egiten eta kontratazio-espediente hauek izapidetzen:

*En el ámbito de la contratación administrativa, se mantiene una importante actividad por parte de la Asesoría Jurídica durante el año 2022, habiendo colaborado en la elaboración de las memorias y en la tramitación de los siguientes expedientes contratación:*

- Zerbitzu-kontratua, Euskadiko Museoen sistema informatikoan integratutako museoetako objektuak 3Dn modelatzeko eta argazkiak ateratzeko.
- Euskadiko Artxibo Historikoaren atzeko fatxada egokitzeko obra-kontratua eta zuzendaritza fakultatiboa.
- Euskadiko Artxibo Historikoan gordetako dokumentazio historikoa digitalizatzeko kontratua.
- Euskadiko Artxibo Historikoan garbiketa-zerbitzua emateko kontratua (2022-2024).
- Euskal kultura-ondarea osatzen duten eta edozein erakunde publiko edo pribatutan gordailututa dauden baliabide bibliografikoak eta dokumentalak digitalizatzeko zerbitzua kontratatzea, Euskariana euskal kulturaren atari digitalean zabaltzeko.
- Lorenzo Riva de Balenciagaren zirriborroak eskuratzeko kontratua (the glamorous 1950, Drawings from the iconic maison).
- Euskadiko industria-ondare higigarriaren bilduma Orkonerako iparraldeko pabiloian bildu eta kontserbatu ahal izateko industria-biltegiratze sistema bat eskuratu eta muntatzeko kontratua.
- Euskadiko industria-ondare higigarriaren bildumako zenbait objektu Orkonerako iparraldeko pabiloian (Lutxana-Barakaldo) kargatu eta deskargatzeko eta garraiatzeko zerbitzuak emateko kontratua.
- Lutxana-Barakaldoko (Bizkaia) Orkonerako instalazio zaharretan Euskadiko ondare industrial higigarriko piezen biltegi bisitagarri bat eraikitzeko obrak gauzatzeko kontratua.
- BIC deklaratutako ondasunen dokumentazio-zerbitzua emateko kontratua, ondasun horiek beste administrazio batzuenak edo pertsona pribatuenak badira, Europar Batasunak finantzatutako (Next Generation – EU) suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren 24. osagaiaren esparruan (Kultura-industriaren balioa handitzea).
- Eliza Katolikoaren ondarearen inbentarioa digitalizatzeko zerbitzua emateko kontratua, Europar Batasunak finantzatutako (Next Generation – EU) suspertze-, eraldatze- eta erresilientzia-planaren 24. osagaiaren esparruan (Kultura-industriaren balioa handitzea).

- *Contrato de servicios, para a toma de fotografías y moldeado 3D de objetos de los museos integrados en el sistema informático de Museos de Euskadi.*
- *Contrato de obras y dirección facultativa para la adecuación de la fachada trasera del Archivo Histórico de Euskadi.*
- *Contrato digitalización de documentación histórica conservada en el Archivo Histórico de Euskadi.*
- *Contrato para la prestación del servicio de limpieza en el Archivo Histórico de Euskadi (2022-2024).*
- *Contratación del servicio de digitalización de recursos bibliográficos y documentales que forman parte del patrimonio cultural vasco, depositados en cualquier entidad pública o privada, orientada a su difusión en Euskariana, portal digital de la cultura vasca.*
- *Contrato para la adquisición de la adquisición de bocetos de Lorenzo Riva "Balenciaga, the glamorous 1950´s drawings from the iconic maison".*
- *Contrato de suministro y montaje de un sistema de almacenaje industrial que permita agrupar y conservar la colección de patrimonio industrial mueble de Euskadi en el pabellón norte de Orkonera.*
- *Contrato para la prestación de los servicios de carga y descarga y de transporte de determinados objetos pertenecientes a la colección de patrimonio industrial mueble de Euskadi al pabellón norte de Orkonera (Lutxana–Barakaldo).*
- *Contrato para la ejecución de las obras de construcción de un almacén visitable de piezas de patrimonio industrial mueble de Euskadi en las antiguas instalaciones de Orkonera, en Lutxana-Barakaldo (Bizkaia).*
- *Contrato para la prestación del servicio de documentación de los bienes declarados BIC, pertenecientes a otras Administraciones o personas privadas, en el marco del componente 24 "Revalorización de la industria cultural", del plan de recuperación, transformación y resilencia, financiado por la Unión Europea (Next Generation – EU).*
- *Contrato para la prestación del servicio de digitalización del inventario del patrimonio de la Iglesia Católica en el marco del componente 24 "Revalorización de la industria cultural", del plan de recuperación, transformación y resilencia, financiado por la Unión Europea (Next Generation – EU).*

Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea garatzeko, Euskal Kultura Ondarearen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari buruzko urtarrilaren 11ko 6/2022 Dekretua onartu zen.

*En desarrollo de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, se aprobó el Decreto 6/2022, de 11 de enero, del Registro de la Comunidad Autónoma del País Vasco del Patrimonio Cultural Vasco.*

Era berean, 2022. urtean aurrera egin da Kulturaren Euskal Kontseiluari, oinarrizko babesa duten kultura-ondasunen erregistroari eta kultura-ondare immaterialaren inbentarioari buruzko dekretu-proiektuak izapidetzen.

*Asimismo, a lo largo del año 2022 se ha avanzado en la tramitación de los proyectos de decreto referentes al Consejo Vasco de Cultura, el Registro de los bienes culturales de protección básica y el inventario del patrimonio cultural inmaterial.*

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2022an deitutako laguntzen kudeaketarako oinarriak idazten eta aholkularitza ematen lagundu da. Zehazki, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren hamabi laguntza-agindutan parte hartu du Aholkularitza Juridikoak:

*Se ha colaborado en la redacción de las bases y en el asesoramiento de la gestión de las ayudas convocadas por la Dirección de Patrimonio Cultural en el año 2022, En concreto, las doce órdenes de ayuda de la Dirección de Patrimonio Cultural en las que la Asesoría Jurídica ha prestado su participación han sido las siguientes:*

1. Agindua, 2022ko maiatzaren 18koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2022-2024 aldirako dirulaguntzak arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

*1. Orden de 18 de mayo de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regulan y convocan, para el periodo 2022-2024, subvenciones para la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco.*

2. Agindua, 2022ko uztailaren 22koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022-2023 aldirako dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, Euskal Kultura Ondare Immaterialaren babes-eremura bideratutako lanak egiteko

*2. Orden de 22 de julio 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se convocan, para el período 2022-2023, subvenciones para la ejecución de trabajos orientados al ámbito de la salvaguarda del Patrimonio Cultural Inmaterial Vasco.*

3. Agindua, 2022ko ekainaren 14koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia egiten baita.

*3. Orden de 14 de junio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se aprueban las bases y se convoca la concesión de subvenciones para la implantación y/o desarrollo de las nuevas tecnologías en las bibliotecas integradas en la Red de Lectura Pública de Euskadi.*

4. Agindua, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, itsas kultura-ondarearen garrantzia nabarmentzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak ezarri eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

*4. Orden de 25 de mayo de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se establecen las bases reguladoras y se convocan, para el ejercicio 2022, subvenciones para la puesta en valor del patrimonio cultural marítimo.*

5. Agindua, 2022ko uztailaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an irakurketa sustatzeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuak erabiltzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

*5. Orden de 6 de julio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula y se convoca la concesión de subvenciones para la promoción de la lectura y del uso de los servicios de las bibliotecas integradas en la Red de Lectura Pública de Euskadi en el año 2022.*

6. Agindua, 2022ko apirilaren 6koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Euskadiko museo eta bildumetarako 2022. urterako dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

*6. Orden de 6 de abril de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula y convoca la concesión de subvenciones destinadas a museos y colecciones de Euskadi para el año 2022.*

7. Agindua, 2022ko uztailaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an Euskadiko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena.

*7. Orden de 27 de julio 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se convoca la concesión de subvenciones para la dotación y/o renovación de fondos de bibliotecas de Euskadi en el año 2022.*

8. Agindua, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022an eta 2023an euskal kultura-ondarearen babesaren eremura bideratutako ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak emateko araubidea arautu eta horietarako deialdia egiten duena.

*8. Orden de 8 de junio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se convoca y regula el régimen de concesión de subvenciones para la realización durante los años 2022 y 2023 de trabajos de investigación orientados al ámbito de la protección del Patrimonio Cultural Vasco.*

9. Agindua, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta

*9. Orden de 8 de junio de 2022, del Consejero de Cultura*

Hizkuntza Politikako sailburuarena, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko dirulaguntzak ezartzen dituena eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

*y Política Lingüística, por la que se establecen subvenciones para la organización, digitalización y difusión de archivos no públicos y se efectúa su convocatoria para el ejercicio 2022.*

10. Agindua, 2022ko ekainaren 8koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, toki-entitateei artxibo-sistema propio bat abian jartzeko eta/edo finkatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

*10. Orden de 8 de junio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se establece el régimen de concesión de subvenciones a entidades locales para la puesta en funcionamiento y/o consolidación de un sistema de archivo propio y se efectúa su convocatoria para el ejercicio 2022.*

11. Agindua, 2022ko uztailaren 27koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita euskal kultura-ondarea OAI-PMH biltegien bidez katalogatu, digitalizatu, kontserbatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko araubidea, eta 2022ko ekitaldirako deialdia egiten baita.

*11. Orden de 27 de julio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la catalogación, digitalización, conservación y difusión del patrimonio cultural vasco a través de repositorios OAI-PMH y se efectúa su convocatoria para el ejercicio 2022.*

12. Agindua, 2022ko irilaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Europar Batasunak finantzatutako Next Generation EU Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak berritu eta/edo handitzeko dirulaguntzak emateko arauak, eta laguntza horien deialdia egiten baita.

*12. Orden de 28 de septiembre de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regulan y convocan las ayudas para las subvenciones para la dotación y/o renovación de fondos de bibliotecas en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiado por la Unión Europea, Next Generation EU.*

Jabetza Intelektualaren Erregistroaren jarduerari dagokionez, 2021ean tresna informatiko berri bat ezarri zuen Kultura Ministerioak, erregistro-idazpenen inskripzioa arintzeko eta jabetza intelektualeko eskubideak inskribatzeko eskaeren kudeaketa telematikoa errazteko.

*Respecto a la actividad del Registro de la Propiedad Intelectual, en el año 2021 se implementó una nueva herramienta informática desde el Ministerio de Cultura, destinada a agilizar la inscripción de los asientos registrales y a facilitar la gestión telemática de las solicitudes de inscripción de derechos de propiedad intelectual.*

Jabetza Intelektualaren Erregistroko espedienteen kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ingurune digitalean erabat integratzeko, 2022an proiektu bat jarri zen abian, helburu hori ahalbidetuko zuen tresna informatiko batez hornitzeko. Lanek erritmo onean egin dute aurrera 2022. urtean, eta datorren urtean aplikazio informatiko berria ezartzea espero da.

*Con el fin de integrar plenamente la gestión de los expedientes del Registro de la Propiedad Intelectual en el entorno digital de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el año 2022 se puso en marcha un proyecto destinado a dotarse de una herramienta informática que hiciera posible dicha finalidad. Los trabajos han avanzado a buen ritmo a lo largo del año 2022 y se espera la implantación de la nueva aplicación informática en el próximo año.*

Bestalde, Erregistroak dagokion Erregelamenduak ezarritakoa baino epe laburragoan izapidetu eta ebatzi ditu aurkeztutako eskaerak; beraz, Erregistroaren kudeaketa eguneratuta dago. Amaitutako espedienteak eta erregistratutako obrak Jaurlaritzaren Artxibo Nagusian gordeko dira, artxibatzeko eta zaintzeko.

*Por su parte, el Registro ha tramitado y resuelto las solicitudes presentadas en un tiempo inferior al marcado por el Reglamento correspondiente, por lo que, la gestión del Registro se lleva al día. Los expedientes finalizados y las obras ya registradas serán depositados en el Archivo General del Gobierno para su archivo y custodia.*

Zehazki, EAEko Jabetza Intelektualaren Erregistroan izena emateko eskaerak 1.818 izan dira 2022an, obra mota hauen arabera: literarioak (856), zientifikoak (69), musikalak (609), artistikoak (104), ordenagailu-programak (61), ikus-entzunezkoak (76), datu-baseak (2), fonogramak (38), obra teknikoak (2) eta web-orriak (1).

*En concreto, el número de solicitudes de inscripción en el Registro de la Propiedad Intelectual de la CAPV asciende en el año 2022 a un total de 1.818 solicitudes, según los siguientes tipos de obras: literarias (856), científicas (69), musicales (609), artísticas (104), programas de ordenador (61), audiovisuales (76), bases de datos (2), fonogramas (38), obras técnicas (2) y páginas web (1).*

Lurralde-banaketaren ikuspegitik, 235 obra erregistratu dira Arabako erregistro-bulegoan, 948 Bizkaiko bulegoan eta 635 Gipuzkoako bulegoan. Era berean, erantsi behar da aurkeztutako inskripzio-eskabide guztietatik 721 emakumeei dagozkiela eta 1.097 gizonei.

*Desde el punto de vista de la distribución territorial, se han registrado 235 obras en la Oficina del Registro de Araba, 948 obras en la Oficina de Bizkaia y 635 en la Oficina de Gipuzkoa. Asimismo, debe añadirse que del total de solicitudes de inscripción presentadas, 721 corresponden a mujeres y 1.097 a hombres.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4515 GIZARTE HEDABIDEAK | *4515 MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| KABINETEAREN ETA GIZARTE HEDABIDEEN ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE GABINETE Y MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL* |

**HELBURUA**

1. GIZARTE HEDABIDEEKIKO HARREMANAK ETA HEDABIDEEI SAILEKO ZUZENDARITZEK EGITEN DITUZTEN JARDUEREN BERRI EMATEA

2. EiTBk ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BEHAR BEZALA EGINGO DUELA BERMATZEA, HOTS, EUSKAL KULTURA ETA EUSKARARI, ETA EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA HEDATZEARI LAGUNTZA EMANGO DIELA

***OBJETIVO***

*1. RELACIÓN CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN Y DIFUSIÓN A LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN DE LAS ACTIVIDADES QUE DESARROLLAN LAS DIRECCIONES DEL DEPARTAMENTO*

*2. GARANTIZAR LA ADECUADA OFERTA DE SERVICIO PÚBLICO DE EiTB, CONTRIBUYENDO AL FOMENTO Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA VASCA Y DEL EUSKERA, ASÍ COMO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES*

**BETETZE MAILA**

1. GIZARTE HEDABIDEEKIKO HARREMANAK ETA HEDABIDEEI SAILEKO ZUZENDARITZEK EGITEN DITUZTEN JARDUEREN BERRI EMATEA

2022an, lehenengo aldiz, Sailaren publizitatearekin zerikusia duten kontratazioak, bai sorkuntza eta ekoizpenari dagozkienak, baita publizitate espazioei dagozkienak ere, modu zentralizatuan kudeatu eta tramitatu dira, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzatik. Hain zuzen, espazioen erosketaren kasuan, 2022an kontratu bakar bat lizitatu eta esleitu da, Sail osoaren zerbitzuetarako.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 6 komunikazio-kanpaina egin ditu, saileko zuzendaritzen jardueren berri emateko.

2. EiTBk ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA BEHAR BEZALA EGINGO DUELA BERMATZEA, HOTS, EUSKAL KULTURA ETA EUSKARARI, ETA EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN BERDINTASUNA HEDATZEARI LAGUNTZA EMANGO DIELA

2022ko martxoaren 8an Eusko Jaurlaritzaren eta EiTBren arteko 2022-2025 aldirako Kontratu Programa berria sinatu zen.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

*1. RELACIÓN CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN Y DIFUSIÓN A LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN DE LAS ACTIVIDADES QUE DESARROLLAN LAS DIRECCIONES DEL DEPARTAMENTO*

*En el año 2022, por primera vez, se han gestionado y tramitado de manera centralizada desde la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social las contrataciones en materia de publicidad de todo el Departamento, tanto de los servicios de creatividad y producción de las campañas, como de la compra de espacios. Precisamente, en el caso de la compra de espacios publicitarios, en 2022 se ha licitado y adjudicado un contrato global a nivel de Departamento.*

*Así, el Departamento de Cultura y Política Lingüística ha llevado a cabo 6 campañas de comunicación de las actividades que desarrollan las direcciones del Departamento.*

*2. GARANTIZAR LA ADECUADA OFERTA DE SERVICIO PÚBLICO DE EiTB, CONTRIBUYENDO AL FOMENTO Y DIFUSIÓN DE LA CULTURA VASCA Y DEL EUSKERA, ASÍ COMO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES*

*El 8 de marzo de 2022 se firmó el nuevo Contrato-Programa entre el Gobierno Vasco y EiTB para el periodo 2022-2025.*

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzatik EiTBk zerbitzu publikoaren eskaintza behar bezala bete dezan, alegia, informazioa, entretenimendua, euskal kultura eta euskararen sustapena, zein emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta hedatzea, ikus-entzunezko sektorearen sustapena, jarri beharreko bitartekoak eskura ematen jarraitu da, aipaturiko betebeharra horrela bermatzeko.

*Desde la Dirección de Gabinete y Medios de Comunicación Social se han mantenido los medios necesarios para garantizar la adecuada oferta de servicio público de EiTB, es decir, la oferta de información y entretenimiento y la contribución al fomento y difusión de la cultura vasca y el euskera, así como de la igualdad de mujeres y hombres y a la actividad del sector audiovisual.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 4711 HIZKUNTZA POLITIKA | *4711 POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 11 KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA | *11 CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA | *VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS* |
| EUSKARA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA* |
| HIZKUNTZA IKERKETA ETA KOORDINAZIORAKO ZUZENDARITZA | *DIRECCIÓN DE INVESTIGACIÓN LINGÜÍSTICA Y COORDINACIÓN* |

| **HELBURUA** | ***OBJETIVO*** |
|---|---|
| 1. HIZKUNTZA POLITIKA GARATZEKO ADOSTASUNAK LANTZEA | *1. ELABORAR CONSENSOS PARA EL DESARROLLO DE LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA* |
| 2. HELDUEN IKASKUNTZA-EGITASMOA SENDOTZEA | *2. FORTALECER EL PROYECTO DE APRENDIZAJE DEL EUSKERA DE PERSONAS ADULTAS* |
| 3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATZEA | *3. GARANTIZAR LA TRANSMISIÓN DEL EUSKERA* |
| 4. EUSKARAN EGOERARI ETA BILAKABIDEARI BURUZKO IKERKETA SUSTATZEA | *4. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL OCIO Y EL DEPORTE* |
| 5. INGURUNE DIGITALEAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA | *5. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL* |
| 6. HEDABIDEETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA | *6. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN* |
| 7. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA | *7. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE* |
| 8. EREMU SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA | *8. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ÁMBITO SOCIOECONÓMICO* |
| 9. EUSKARAREN ERABILERA BERMATZEKO, GIZARTEA AKTIBATZEA | *9. ACTIVAR LA SOCIEDAD PARA GARANTIZAR EL USO DEL EUSKERA* |
| 10. HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEA | *10. GARANTIZAR LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS DE LA CIUDADANÍA* |
| 11. ERAKUNDE ARTEKO LANKIDETZA INDARTZEA | *11. REFORZAR LA COOPERACIÓN INTERINSTITUCIONAL* |
| 12. EUSKARAREN EGOERARI ETA BILAKABIDEARI BURUZKO IKERKETAK SUSTATZEA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA | *12. FOMENTAR LA INVESTIGACIÓN SOBRE LA SITUACIÓN Y EVOLUCIÓN DEL EUSKERA Y DIFUNDIR SU CONOCIMIENTO* |
| 13. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA SUSTATU EUSKARAREN EREMUAN | *13. PROMOVER LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL ÁMBITO DEL EUSKERA* |

**BETETZE MAILA**

## 1. HIZKUNTZA POLITIKA GARATZEKO ADOSTASUNAK LANTZEA

1.1. Euskararen Aholku Batzordearen Osoko ez ohiko bilkura egin zen 2022ko apirilaren 4an Lehendakaritzan. Bertan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza lantzen ari den Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen dekretuaren zirriborroa aurkeztu zen eta batzordekideen ekarpenak ere jaso ziren. Abenduaren 5ean, EABren Osokoak urteroko bilera egin zuen Lehendakaritzan. Batetik, Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2023ko lan-ildo nagusiak aurkeztu zituen, eta, bestetik, batzorde-atal bakoitzak bere lan jarduera azaldu zuen eta aurrera begirako erronka nagusiak azaldu zituen. Besteak beste, Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria garatzeko bidean lantzen ari diren markoa aztertu zuten.

1.2. EABren batzorde-atalek lanean jarraitu dute. Ingurune Digitala batzorde-atalak 4 bilera egin ditu eta horietan “Euskararen Ingurune Digitala: Gomendioak 2021-2024” dokumentuaren jarraipenari ekin dio. Landutako gaiak hauek izan dira: azpitituluak, hizkuntza teknologien garapena, eta ikus-entzunezkoen alorra. Horrez gain, Azpitituluen Lantaldea sortu da batzorde honen baitan, gai horri buruzko berariazko lanketa zehatz bat gauzatzeko. Lantalde horrek 3 bilera egin ditu, eta bere eginkizuna burututzat eman da azpitituluen gaur egungo egoera eta hainbat gomendio jasotzen dituen proposamena aurkeztu ondoren. Hizkuntza eta Generoa batzorde-atalak 2 bilera egin ditu: batetik, euskara- eta berdintasun-politika publikoak gidatzen dituzten plangintza orokorrak aztertu dira, eta hobetzeko ekarpenak egin; bestetik, euskararen marko diskurtsiboak genero ikuspegitik aztertu dira. Arlo Sozioekonomikoa batzorde-atalak hiru bilera egin ditu eta *Lan-eremuko bisiorako hipotesia. Eztabaidarako zirriborroa* izeneko dokumentu estrategikoa osatzen hasi da. Horretarako hainbat lan/txosten enkargatu ditu, besteak beste mugarri hipotesiena, enpresaren ikuspuntua jasoko duena eta beso teknikoak eman beharreko jauziari dagokiona. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) berritzeko batzorde-atala abian jarri da. 3 bilera egin ditu eta hausnarketa sakona egin du egungo hizkuntza politikaren inguruan, eta datozen urteetarako hizkuntza politikaren arlo estrategikoa adosten saiatu da.

1.3. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) ebaluatzeko eta berritzeko lanak abian jarri dira: ESEPen araberako diagnostiko txostena abiapuntua izanik, AMIA, Misioa, Bisioa eta Balioak landu dira. Horiez gain, beste lan osagarri batzuk gauzatu dira: gazteen artean Etzigarriak egitasmoa eta, Lehendakaritzarekin elkarlanean, EAEko herritarren euskarari buruzko iritziak aztertu dira.

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

## *1. ELABORAR CONSENSOS PARA EL DESARROLLO DE LA POLÍTICA LINGÜÍSTICA*

*1.1. El Pleno del Consejo Asesor del Euskera celebró una reunión extraordinaria en Lehendakaritza el 4 de abril de 2022. En el mismo se presentó el borrador del decreto por el que se regulará el proceso de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco que está trabajando la Viceconsejería de Política Lingüística, y se recogieron las aportaciones de las vocales del Consejo. El 5 de diciembre, el Pleno del Consejo Asesor del Euskera celebró su reunión anual. En la reunión, por un lado, el consejero de Cultura y Política Lingüística presentó las líneas generales de trabajo de la Viceconsejería de Política Lingüística para 2023, y por otro, cada una de las comisiones presentó su actividad y los principales retos de cara al futuro. Entre otras cosas, se analizó el marco en el que se está trabajando para desarrollar el nuevo Plan de Acción para la Promoción del Euskera.*

*1.2. Las comisiones especiales del CAE han continuado en activo. La Comisión Especial Entorno Digital se ha reunido en 4 ocasiones, en las que ha seguido realizando el seguimiento del documento “El Entorno Digital del Euskera: Recomendaciones 2021-2024”. Los temas tratados han sido los siguientes: subtítulos, desarrollo de las tecnologías del lenguaje, y área audiovisual. Además, dentro de esta comisión se ha constituido el Grupo de Trabajo sobre Subtitulación para realizar un trabajo concreto sobre el tema. Este grupo se ha reunido en 3 ocasiones y se ha dado por finalizada su actividad después de presentar una propuesta que recoge la situación actual de la subtitulación y varias recomendaciones. La Comisión Especial Lengua y Género ha celebrado 2 reuniones: por un lado, se han analizado las planificaciones generales que guían las políticas públicas de euskera e igualdad y se han realizado aportaciones para su mejora; por otro lado, se han analizado los marcos discursivos del euskera desde la perspectiva de género. Se han celebrado tres reuniones de la Comisión de Área Socioeconómica y se ha comenzado a elaborar el documento estratégico denominado Lan-eremuko bisiorako hipotesia. Eztabaidarako zirriborroa. Para ello ha encargado diversos trabajos/informes, entre ellos el referido a las hipótesis de hitos, el trabajo que recogerá el punto de vista de la empresa, y el que haga referencia al salto que debería dar el brazo técnico. Se ha puesto en marcha la Comisión para la renovación del Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP). Ha mantenido 3 reuniones y ha realizado una profunda reflexión sobre la política lingüística actual y ha tratado de consensuar la acción estratégica de la política lingüística para los próximos años.*

*1.3. Se han puesto en marcha los trabajos para evaluar y renovar el Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP): partiendo del informe diagnóstico del ESEP, se han elaborado el DAFO, la Misión, la Visión y los Valores. Además, se han llevado a cabo otros trabajos complementarios: el proyecto Etzigarriak entre las personas jóvenes y, en colaboración con Lehendakaritza, se han analizado las opiniones de la ciudadanía de la CAV sobre el euskera.*

1.4. Euskararen Agenda Estrategikoaren 2022ko kudeaketa plana osatu da, eta jarraipen bilerak egin dira: 2022ko urtarrilaren 25ean Jarraipen Batzorde Politikoa elkartu da eta otsailaren 23an Jarraipen Batzorde Teknikoa.

*1.4. Se ha elaborado el plan de gestión 2022 de la Agenda Estratégica del Euskera y se han realizado las reuniones de seguimiento: el 25 de enero de 2022 se ha reunido la Comisión Política de Seguimiento y el 23 de febrero la Comisión Técnica de Seguimiento.*

## 2. HELDUEN IKASKUNTZA-EGITASMOA SENDOTZEA

## *2. FORTALECER EL PROYECTO DE APRENDIZAJE DEL EUSKERA DE PERSONAS ADULTAS*

2.1. Helduen euskara-irakaskuntzarako kurrikulumak finkatutako mailaren bat, edo baliokidea, gainditzen duten ikasleentzako 2022. ekitaldiko dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu da.

Guztira 6.086 eskaera aurkeztuta, 4.765 ikasle izan dira onuradunak, horietatik 4.439 A1etik B2ra bitarteko mailaren bat gainditu dutenak. Kopuru horretan barne hartuta daude C1 maila egiaztatu duten eta 1992an edo beranduago jaio diren ikasleak. Gainerako 326 ikasleek C1 maila (1.991ean edo lehenago jaiotakoak) edo C2 maila egiaztatu dute.

*2.1. Se ha regulado y resuelto la convocatoria de ayudas del ejercicio 2022 a alumnos y alumnas que superen alguno de los niveles del currículo de enseñanza del euskera a personas adultas, o equivalente.*

*El número total de solicitudes ha sido de 6.086 y han sido 4.765 alumnos y alumnas las beneficiarias, de las cuales 4.439 han superado algún nivel desde A1 a B2, o el C1 (si han nacido en 1992 o posteriormente). Los restantes 326 alumnos y alumnas han acreditado el nivel C1 (nacidos en 1.991 o anteriormente) o C2.*

2.2. Helduen kontziliazio-premietara hobeto egokitutako eskaintza bat sustatu dugu, ikaskuntza-modalitate erdipresentzialen bidez eta plataforma birtualen erabileraren bidez, betiere euskaltegiekin elkarlanean. 5 modalitate hauek izan dira: Aurrez aurreko ikasteredua, ikasle-taldea ikasgelan, irakaslearen ardurapean; Ez-ohiko egoera dela-eta, salbuespen-gisa, taldearen aurrez aurreko jarduera modu presentziala eta ez presentziala uztartuz antolatzeko aukera; jardun biko ikasteredua, taldeko jarduerak ikasgelan eta horrekin batera ikasle bakoitzak bakarka burutu behar duen jardunarekin eta ikasleen tutoretza-saioekin; Tutorizatutako autoikaskuntza ikasteredua; Urrutiko aurrez aurreko talde-irakaskuntza ikasteredua, irakasle baten ardurapean taldeko ikasle guztiekin batera IKTen bidezko plataformak erabiliz.

*2.2. Se ha promovido una oferta más adaptada a las necesidades de conciliación de las personas adultas a través de modalidades de aprendizaje semipresencial y del uso de plataformas virtuales, en colaboración con los euskaltegis. Han sido estas 5 modalidades: Modelo de aprendizaje presencial, grupo de alumnos y alumnas en el aula, bajo la responsabilidad del profesor o profesora; Excepcionalmente se ha dado la posibilidad de organizar la actividad presencial del grupo combinando los modos presencial y no presencial; -El modelo de aprendizaje mixto, con las actividades grupales en el aula junto con la actuación individual de cada alumno y alumna y las sesiones de tutoría del alumnado; Modelo de autoaprendizaje tutorizado; Modelo de enseñanza grupal presencial a distancia, bajo la responsabilidad de un profesor o profesora utilizando plataformas TIC con todos los alumnos y alumnas del grupo a la vez.*

2.3. Euskaltegi pribatuentzako dirulaguntzen deialdia arautu eta esleitu da. Guztira EAEko 57 euskaltegi pribatu eta 6 autoikaskuntzarako zentro izan dira onuradunak, eta 483.733 jarduera-unitate finantziatu dira. Jarduera-unitateak ikasteredu-guztietako jarduerak biltzen ditu, aurrez aurreko talde-orduak, jardun biko tutoretza-orduak, autoikaskuntza-ikastaroak eta barnetegietakoak.

*2.3. Se han regulado y adjudicado las convocatorias de subvenciones a euskaltegis privados. En total han sido beneficiarios 57 euskaltegis y 6 centros de autoaprendizaje de la CAPV, financiándose 483.733 unidades de actividad lectiva. La unidad de actividad lectiva engloba las actividades de todos los modelos de enseñanza, las horas de grupo presenciales, las horas de tutoría de aprendizaje mixto, los cursos de autoaprendizaje y los de internado.*

2.4. 2021-2022 ikasturtean 2.511 ikasle atzerritar aritu dira euskara ikasten EAEko euskaltegietan. Horretaz gain, hizkuntza-harrerako programaren barruan –AISA, 16 urtetik gorako etorkinei zuzendutakoa– 362 ikasle matrikulatu dira, euskarara hurbiltzeko eta euskal kultura eta ohiturak ezagututa euskal gizartean integra daitezen lortzeko.

*2.4. En el curso 2021-2022, 2.511 alumnos y alumnas de procedencia extranjera han estudiado euskera en los euskaltegis de la CAV. Además, dentro del programa de acogida lingüística AISA, dirigido a personas inmigrantes mayores de 16 años, con el objetivo de acercarles al euskera y conseguir su integración en la sociedad a través del conocimiento de la cultura vasca, se han matriculado 362 alumnos y alumnas.*

## 3. EUSKARAREN TRANSMISIOA BERMATZEA

## *3. GARANTIZAR LA TRANSMISIÓN DEL EUSKERA*

3.1. Euskararen familia bidezko transmisioari buruzko datuen ustiaketa egin da VII. Inkesta soziolinguistikoan.

*3.1. En la VII Encuesta sociolingüística se han explotado los datos sobre la transmisión familiar del euskera.*

3.2. 2022. urtean abian jarri zen kontratu bat aholkularitza empresa batekin udaletan familia bidezko transmisio

*3.2. En el año 2022 se puso en marcha un contrato con una consultora para el desarrollo de políticas de transmisión*

politikak garatzeko. Lan batzorde interinstituzionala eratu, inkesta bat egin zen horren gaineko materiala biltzekoeta pilotatzeetan parte hartzeko prest leudekeen galdetzeko; eta oinarrizko metodología baten disinua egin zen.

*familiar en los ayuntamientos. Se constituyó una comisión de trabajo interinstitucional, se realizó una encuesta para recoger material al respecto y para preguntar si estarían dispuestas a participar en los pilotajes, y se elaboró el diseño de una metodología básica.*

## 4.- AISIALDIAN ETA KIROLEAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA

## *4. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL OCIO Y EL DEPORTE*

4.1.Kirolean euskararen erabilera sustatzeko plana 2021-2024 2021eko uztailean Gobernu Batzordetik plana pasatu zenetik, planean jasotako lau esparru giltzarriak: trebakuntza, erabilera, berrikuntza eta sustapena, garatzen joan dira honako eremuetan: entrenatzaileak, epaileak, taldeak, erabilera eta aldekotasuna.

*4.1. Desde que el Plan 2021-2024 para el fomento del uso del euskera en el deporte pasó por Consejo de Gobierno en julio de 2021, los cuatro ámbitos clave recogidos en el Plan: formación, uso del euskera, innovación y promoción, han ido desarrollándose en los siguientes campos: entrenadores, árbitros y árbitras, entidades deportivas, uso del euskera y promoción.*

4.2. Kirolenek, multikirol teknikari titulua eskuratzeko ikastaroak euskara hutsean eskaini ditu. Horrek ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan, HPSk publizitate kanpaina bat bideratu du EITBko webgunean eta irratian eta, hortik kanpo, sare sozialetan.

*4.2. Kirolene ha ofertado exclusivamente en euskera los cursos para la obtención del título de Técnico Multideportivo. Para su máxima difusión, la VPL ha lanzado una campaña publicitaria en EITB, tanto por la web como en radio, y aparte de eso, también en redes sociales.*

4.3. Euskal Kirol Federazioaren Batasunarekin lankidetzan, errugbi, gimnasia, txirrindularitza, pilota eta surf federazioek euskara sustatzeko ekimenak jarri dituzte martxan, HPSk esleitutako dirulaguntza zuzenaren bidez.

*4.3. En colaboración con la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, las federaciones de rugby, gimnasia, ciclismo, pelota y surf han puesto en marcha iniciativas de promoción del euskera a través de la subvención directa otorgada por la VPL.*

4.4. Gipuzkoako Futbol Federazioarekin bigarren aldiz akordio bat lortu da, UEFA B eta UEFA C ikastaroen materiala euskarara ekartzeko. Oraingoan, ikusentzunezkoak izan dira. Hizkuntza Estrategiak ikastaroa prestatu da. Kirol ikasketak euskaraz egiteko eskaintzak areagotzeaz gain, ikastaro ofizialetan zein federazioek eskainitakoetan hizkuntza-estrategien gaineko moduluak txertatzea da helburua. 10 orduko moduluan soziolinguistikari buruzko oinarrizko edukiak eskaini dira, banakako saioetan zein taldekakoetan.

*4.4. Por segunda vez se ha llegado a un acuerdo con la Federación Guipuzcoana de Fútbol para traer al euskera el material de los cursos UEFA B y UEFA C. En esta ocasión han sido audiovisuales. Se ha preparado el módulo Estrategias lingüísticas. Además de incrementar las ofertas para cursar estudios deportivos en euskera, se ha incorporado el módulo sobre estrategias lingüísticas tanto en cursos oficiales como en los ofertados por las federaciones. En el módulo de 10 horas se ofrecen contenidos básicos sobre sociolingüística, tanto en sesiones individuales como grupales.*

4.5. LanHitz programaren markoan, lantokietako (kirol taldeetan) euskara planak diruz laguntzeko deialdia argitaratu da abuztuaren 31ko EHAAn (167. Zk): AGINDUA, 2022ko uztailaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, EAEn sektore pribatuan dauden lantokietan 2022an euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko dirulaguntzak (Lanhitz) emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena. Deialdiak honako multzoak jasota ditu: 1.- Ekintza solteak (entitateak euskara planik ez badu); 2.- Diagnostikoa eta euskara plana (entitateak oraindik euskara plana ez badu); 3.- Urteko kudeaketa plana (entitateak euskara plana badu); 4.- Proiektu estrategikoak (entitateak euskara plana badu). Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak deialdiaren berri eman du sektorean; Ebazpenean, onuradunen artean lau kirol talde eta bi kirol federazio daude.

*4.5. En el marco del programa LanHitz, se ha publicado en el BOPV nº 167, de 31 de agosto, la convocatoria de subvenciones para planes de euskera en los centros de trabajo (equipos deportivos): ORDEN de 26 de julio de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula y convoca la concesión de subvenciones para el fomento del uso y presencia del euskera en el año 2022 en centros de trabajo radicados en el sector privado de la CAPV (Lanhitz). La convocatoria incluye los siguientes bloques: 1.- Acciones sueltas (si no tiene plan de euskera); 2.- Diagnóstico y plan de euskera (en el caso de que la entidad no disponga aún del plan de euskera); 3.- Plan de gestión anual (si dispone de plan de euskera); 4.- Proyectos estratégicos (si dispone de plan de euskera). La Dirección de Promoción del Euskera ha informado de la convocatoria en el sector. En la resolución, entre las entidades beneficiarias se encuentran cuatro equipos y dos federaciones deportivas.*

4.6. Ruta Quetzalen inspiratutako Euskal Herri mailako ibilbide bat euskeraz egitea da Euskarabenturaren hasierako helburua. Euskararen erabilera esparru ez-formaletan indartzeko, EuskarAbentura espedizioa-2022 egitasmoa diruz lagundu da. Osasun krisiaren eraginez

*4.6. El objetivo inicial de Euskarabentura es la realización en euskera de una ruta vasca inspirada en Ruta Quetzal. Con el fin de reforzar el uso del euskera en ámbitos no formales, se ha subvencionado el proyecto EuskarAbentura-2022. Debido a la llegada de la crisis sanitaria, se introdujeron*

aurreko bi edizioetan hainbat aldaketa egin behar izan ziren, baina 2022an espedizioa bere ohiko formatura itzuli ahal izan da, hau da, 120 gaztek, 31 egunez Euskal Herria zeharkatu ahal izan dute.

*algunos cambios durante dos años, pero en 2022 la expedición ha podido volver a su formato habitual; así, 120 jóvenes han podido atravesar el País Vasco durante 31 días.*

4.7. Euskalgintza deialdian euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea helburu duten egitasmoak diruz laguntzen dira: irakurketa- eta idazketa-trebetasunak garatze aldera buruturiko jardunak, sariak, lehiaketak, idazleen eta irakurleen arteko topaketak eta literatura-gidak. 2022an, guztira, 50.000 euro banatu dira 7 egitasmoren artean. Horrez gain, dirulaguntza izenduna eman zaio Galtzagorri Elkarteari, Euskarazko irakurketa 2022 programa garatzeko. Horrek 2 atal izan ditu: 1. irakasleei zuzendutako lantegiak: haur eta gazteen irakurtzeko ohitura sustatzeko irakasleentzako aholkularitza zerbitzua eskoletan. Guztira, 72 saio antolatu dira EAEko eskoletan: 52 haur eta lehen hezkuntzan eta 20 DBHn. Irakasleei dagokienez, 1.600 irakaslerengana heldu da programa. 2. HGL Eskolan ikastaro osagarria: haur eta gazte literaturaren ezagutzan sakontzeko ikastaroa osagarria, EHUrekin batera. Horretan 30 lagunek hartu dute parte.

*4.7. En la convocatoria Euskalgintza se subvencionan proyectos dirigidos a fomentar el gusto por la lectura en euskera: actividades dirigidas a desarrollar las habilidades de lectura y escritura, premios, concursos, encuentros entre escritores y lectores y guías literarias. En 2022 se han distribuido un total de 50.000 euros entre 7 proyectos. Además, se ha concedido una subvención nominativa a la Asociación Galtzagorri para el desarrollo del programa de lectura en euskera en 2022. Esta va dirigida a dos actividades: 1. Talleres dirigidos al profesorado: servicio de asesoramiento al profesorado para la promoción del hábito lector infantil y juvenil en las escuelas. En total se han organizado 72 sesiones en las escuelas de la CAPV, 52 en infantil y primaria y 20 en ESO. En cuanto al profesorado, se ha llegado a 1.600 docentes. 2. Curso complementario en HGL Eskola para profundizar en el conocimiento de la literatura infantil y juvenil, en colaboración con la UPV/EHU. En ella han participado 30 personas.*

4.8. Euskalgintza deialdia argitaratu da maiatzaren 12an (AGINDUA, 2022ko apirilaren 26koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2022. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena). Esparru ez formaleko egitasmoak, aisialdiko hezitzaileentzako formakuntza, kiroletako begiraleentzako prestakuntza eta material-sorkuntza, ahozko komunikazioa, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzera bideratutako egitasmoak, erdal munduaren hurbilketa, jardunaldiak, familia bidezko transmisioa, irakurzaletasuna eta Interneteko edukiak diruz laguntzen dira. Deialdira 244 eskabide aurkeztu dira eta 1.550.000 euro banatu dira 185 egitasmoren artean.

*4.8. Con fecha 12 de mayo se ha publicado la convocatoria Euskalgintza (ORDEN de 26 de abril de 2022, del Consejero de Cultura y Política Lingüística, por la que se regula y convoca la concesión de subvenciones para la promoción, difusión y/o normalización del euskera en la vida social en el año 2022). Se subvencionan proyectos en el ámbito no formal, formación para educadores y educadoras de tiempo libre, formación y creación de materiales para monitores y monitoras de deportes, comunicación oral, cambio de hábitos lingüísticos y activación de hablantes, aproximación al mundo del euskera de la población no vascohablante, jornadas, transmisión familiar, afición a la lectura y contenidos en internet. A la convocatoria se han presentado 244 solicitudes y se han distribuido 1.550.000 euros entre 185 proyectos.*

## 5. INGURUNE DIGITALEAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA

## *5. AUMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL ENTORNO DIGITAL*

5.1. Ingurune digitalean erabilgarri dauden produktuen berri eman eta horiek zabaltzeko, gozatusareaneuskaraz.eus gunea eguneratu da, eta horrez gain kanpainak burutu dira sare sozialetan, bai gunea bera sustatzeko, baita bertan jasotako hainbat produktu zabaltzeko ere. Horrez gain, publizitate espazioak erosi dira euskarazko hedabide digitaletan, gozatusareaneuskaraz.eus gunea zabaltzeko. Gainera, Egunean Behin lehiaketa sustatzeko lanketa berezi bat egin da, eta aplikazioa ezagutarazteaz gain, horren bidez eskuko telefonoen euskarazko konfigurazioan ere eragin nahi izan da bide batez (Egunean Behin: galdera-erantzunen lehiaketa, APP baten bidez bideratzen dena eta 60.000 bat euskaldun biltzen dituena denboraldi bakoitzean)

*5.1. Para dar a conocer y difundir las herramientas que están disponibles en euskera en el entorno digital, se ha actualizado la página gozatusareaneuskaraz.eus, y se han realizado campañas en las redes sociales para difundir tanto dicha página como varios productos disponibles en la misma. Además, se han comprado espacios publicitarios en medios digitales en euskera sobre este tema. También se ha realizado un trabajo concreto para promocionar el concurso Egunean Behin, con el que también se ha querido incidir también en la configuración en euskera de los teléfonos móviles (Egunean Behin: concurso de preguntas y respuestas que se canaliza a través de una APP y que reúne a unos 60.000 euskaldunes cada temporada).*

5.2. EABren Ingurune Digitala Batzorde-atal Bereziak euskararen ingurune digitalari buruz emandako gomendioen jarraipena egin du, eta horretarako 4 bilera burutu ditu 2022an.

*5.2. La Comisión Especial Entorno Digital del Consejo Asesor del Euskera ha realizado el seguimiento de las recomendaciones para fomentar el euskera en el entorno digital, y se ha reunido en 4 ocasiones en 2022.*

5.3. GAITU Hizkuntza-teknologien Ekintza-planaren jarraipena egin da. 22/030 Enkargua egin zaio EJIEri. Horren bidez, Adimen Artifizialaren Bulegoa eta, horren barruan,

*5.3. Se ha realizado el seguimiento del plan de Acción de Tecnologías del Lenguaje GAITU. Se ha realizado el Encargo 22/030 a EJIE. A través del misma, EJIE ha puesto*

Datuaren Bulegoa garatzeko, EJIEk kontratazioa abian jarri du. Proiektuaren garapena bi urtetan luzatuko da: 2022 eta 2023. Bi kontratu berri bideratu dira Udako Euskal Unibertsitatearekin 52 doktorego-tesi berri corpusari gehitzeko.

*en marcha la contratación para el desarrollo de la Oficina de Inteligencia Artificial y, dentro de ella, de la Oficina del Dato. El desarrollo del proyecto se prolongará en dos años: 2022 y 2023. Se han tramitado dos nuevos contratos con la Universidad Vasca de Verano para incorporar 52 nuevas tesis doctorales al corpus.*

5.4. ITZULI itzultzaile neuronalaren hizkuntza-pare guztiak hobetzen eta eguneratzen jarraitu da. Testutik ahotsera pasatzeko bi ahots berri integratu dira, adimen artifizialaren bidez garatuak: ingeleserako eta frantseserako. Transkripzioa ere integratu da, euskaraz eta gaztelaniaz, testuak diktatzeko. App-ak eguneratu dira ahotsak eta transkripzioa integratzeko.

*5.4. Se ha continuado con la mejora y actualización de todos los pares lingüísticos del traductor neuronal ITZULI. Se han integrado dos nuevas voces para pasar de texto a voz, desarrolladas mediante inteligencia artificial: inglés y francés. También se ha integrado la transcripción en euskera y castellano para la dicción de textos. Se han actualizado las apps para integrar las voces y la transcripción.*

5.5. Euskalgintza deialdian, Euskara Ingurune Digitalaren multzoan hiru kategoria bereiztu dira: D1.- Teknologia berrietan oinarrituta, nerabe eta gazteen aisialdirako euskarazko edukiak sortu eta hedatzea helburu duten egitasmoak: bideo-tutorialak, irudi biziak, youtuberrak, influenzerrak, erronkak, lehiaketak, blogak, podcastak,… biltzen dituzten ekimenak; D2.- Euskarazko atari digitalak. Interneten zerbitzuak euskaraz soilik eskaintzen dituzten webgune ez komertzialak; D3.- Interneten edukiak euskaraz soilik hedatuko dituzten webgune tematiko ez komertzialak. 2022an, guztira, 85 eskabide jaso dira, eta horietatik, 65 egitasmo lagundu dira. Interneten gazteek euskarazko edukiak sortzeko lehiaketa burutu da: #izanbirala. 4 erronkatan parte hartzeko deia zabaldu da, bat Instagramen eta hiru TikToken. Game Erauntsia Elkartearen dirulaguntza izendunaren bidez, bideo-jokoen arloan euskara sustatzeko lanekin jarraitu da (streamer gelak edo bideo-sorkuntzarako ikastaroak, bideo-jokoen zabalkundea, itzulpena eta katalogo eguneratu, besteak beste). PuntuEus Fundazioaren dirulaguntza izendunaren bidez euskarak Interneten duen presentzia eta bisibilitatea indartu da, eta laguntza eman zaie enpresa pribatuei arlo horretan aurrera egiteko. Euskal Wikilarien Kultura Elkarteari dirulaguntza izenduna esleitu zaio IKUSGELA egitasmoa garatzeko; hau euskarazko ikus-entzunezko pedagogiko libreen ataria da. 2022an argitaratu diren 14 bideoak Wikimedia Commons-en daude, eta euskarazko Wikipediako 70 orrialdetik gora irudiztatzeko erabiliak izan dira. Orrialde guzti horien kalitatea asko hobetu da, eta kasu batzuetan, orrialde berriak sortzeko abagunea eskaini dute bideoek. Bideo horiez gain, Jakindun elkartearen lankidetzari esker, dagoeneko sortuta zeuden 235 bideo deskargatu, moldatu, antolatu eta Wikipediako orrietan txertatu dira. Matematikako 203 bideo, fisikako 58 bideo eta kimikako 74 bideo. Guztiak, Wikipediako 104 artikulutan banatuta daude. Jakin Fundazioari dirulaguntza izenduna esleitu zaio GERUZAK egitasmoa garatzeko; hau ikus-entzunezko sorta bat da euskaraz eta euskaratik, feminismoa, soziolinguistika, kultura eta pentsamendua lantzeko, eta, horren bitartez, egun euskal gizarteak dituen hainbat auzi eta erronka mahaigaineratzeko eta aztertzeko baliagarria da. 2022an 3 ikus-entzunezko sortu dira.

